2 PLAN ESTRATÉGICO DE CONVIVENCIA DE NAVARRA | NAFARROAKO BIZIKIDETZAREN PLAN ESTRATEGIKOA



# 2025-2029

Gobierno de Navarra | Nafarroako Gobernua

AGENDA 2030

NAVARRA ⁝ NAFARROA

# 1. Aurkezpena

## BIZIKIDETZAREN I. PLANA 2020-2024: ZERTARAKO BALIO IZAN DU?

Lau urte igaro dira garai hartako Nafarroako Gobernuko Herritarrekiko Harremanetako Departamentuak, Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusiaren bitartez, Nafarroako Bizikidetzaren I. Plan Estrategikoa bultzatu zuenetik. Lehentasunezko helburu bat zuen buruan: **Berdintasunean eta askatasunean bizitzea lortzea Nafarroa demokratiko, plural eta askotariko batean.** Asmo handiko helburu zaila zen, gaur egun ere indarrean dagoena.

Plan berritzailea eta zeharkakoa izan da, eta kalitatezko bizikidetzan aurrera egiten saiatu da, zeina lotuta baitago giza eskubideak bultzatzeko balioei, hala nola askatasuna, justizia, berdintasuna, elkartasuna eta desberdinen arteko errespetua.

Zeharkakotasun hori ez da soilik ikusten Nafarroako Gobernuko 8 departamentu eta zuzendaritza nagusiren inplikazioaren bidez, baizik eta baita haren prestaketan ere, gizarte sareko 67 erakundek eta hainbat eremuri lotutako 300 pertsonak hartu baitzuten parte. Zeharkakotasun hori ekintza zehatzetan ere ikusten da, beste plan batzuk abian jartzea barne, eta, aldi berean, gobernuaren beste plan batzuen osagarria da.

Aldi horretan, Plan hau abian jarri, gauzatu eta ebaluatzeari esker, erakundeek eta gizarte zibilak inoiz hainbesteko intentsitatez eta zabaltasunez jorratu ez diren bideak finkatu eta egin ahal izan dituzte, eta, horrela, zehatzago jakin ahal izan dute zein diren gaur egun garrantzi eta premia handiagoz sortzen diren gaiak, gure bizikidetzari dagokionez.

Esan liteke 2024an amaitu zen Nafarroako Bizikidetzaren I. Plan Estrategikoa lagungarria izan dela erakundeek, politikak eta gizarteak kalitatezko bizikidetza esparru bat sustatzearen garrantziari eta beharrari buruz egiten duten diskurtsoa aberasteko, esparru hori ezinbesteko faktorea baita gure komunitatearen ongizatea eta garapena hobetzeko.

Planaren estrategiek, neurriek eta ekintzek etengabe bilatu dute gizartea eta erakundeak sentsibilizatzea giza eskubideekiko errespetua lortzeko egin beharreko lan izugarriari buruz, egiturazko bidegabekeriak saihestuta eta gatazketan indarkeriaren erabilera baztertuta.

Alde horretatik, diseinatutako estrategiek ibilbide luzea izan dute eta aurrera egin dute, besteak beste, biktima guztien eskubideak asetzeari dagokionez, bai terrorismoari dagokionez, bai motibazio politikoko beste indarkeria mota batzuei dagokienez (1936ko kolpe militarra, errepresio frankista, funtzionario publikoen jarduna eta eskuin muturreko taldeen erasoak, azken mendean Nafarroan gertatutakoak), memoria justua eta erreparatzailea lortzen laguntzeko.

Era berean, plangintza esparru horretan, kultura, hizkuntza, ideologia eta genero aniztasunaren kudeaketari aurre egiteko modu ugari jorratu eta areagotu dira, sortzen diren identitateen arteko bizikidetza modu posibleak aztertu nahian.

Planak aukera eman du bizikidetzarako funtsezkoa den alderdi bat, hots, hezkuntza, garatzeko, haurrak, nerabeak eta gazteak bizikidetzarako balioetan (elkarrizketa, aniztasunarekiko errespetua, eskubideen berdintasuna, gatazken konponbide baketsua, etab.) hezteko ekintzak zabalduz eta hobetuz, ikastetxeetatik harago, hezkuntza ez formalari ere balioa emateko asmoz.

## ZERGATIK EGIN BIZIKIDETZAREN BIGARREN PLANA NAFARROAN?

### Panorama politiko eta sozialean sortzen ari diren joerak

Gaur egun, bai Nafarroan, bai nazioko eta nazioarteko beste esparru batzuetan, hainbat aldaketa eta eraldaketa politiko eta sozial gertatzen ari dira, eta horrek eragin handia du bizikidetzaren kalitatean.

Nahikoa da nazioarteko eszena azkar aztertzea zenbait gai kezkagarriz jabetzeko, hala nola planeta osoko gerra eskalada eta indarkeria, gero eta polarizazio politiko handiagoa, munduko gobernu garrantzitsuek giza eskubideak eta haien defendatzaileak mespretxatzea, gizonen eta emakumeen arteko berdintasun egoerak okerrera egitea, eskubide sozialen arlotik migrazio eta asilo prozesuei erantzuteko egiaztatutako ezintasuna, klima aldaketak eragindako arazoen hazkundea eta ingurumenaren narriadura, pertsonen eta haien kulturen aniztasunaren aurkako erasoak, informazioa faltsutasunez eta gezurrez kutsatzeko joera, sare sozialen eta beste teknologia batzuen izaera inbaditzailea gure eguneroko bizitzan.

Egoera benetan kezkagarri eta negatibo hori intentsitate desberdinarekin hedatzen ari da munduko eskualdeetan, baina gobernu eta gizarte demokratiko guztiei eskatzen ari zaie proaktiboak izatea tokiko eta nazioarteko bizikidetzaren mehatxu horiei erantzuteko. Askatasuna, errespetuzko elkarrizketa, justizia eta bakea nahasten dituzten elementu horiekin batera, beste proposamen sozial eta instituzional itxaropentsu batzuk ere badaude, gatazkak errespetuz eta elkarrizketarekin konpontzeko eta pertsona guztiendako eskubide guztiak bermatzeko moduak aurkitzearen alde egiten dutenak.

Gaur egun, inoiz baino gehiago, bizikidetzaren eta giza eskubideen planak ezinbesteko tresnak dira giza eskubideetan eta bakearen kulturan oinarritutako gizarte demokratikoa lortzeko. Horregatik, Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Departamentuak, Memoria eta Bizikidetza Zuzendaritza Nagusiaren bitartez, Nafarroako Gobernuaren Bizikidetzaren II. Plana bultzatzen du.

### Nafarroako Gobernuaren programazio esparruarekiko koherentzia

Nafarroako Alderdi Sozialistak, Geroa Baik eta Contigo Zurekinek sinatutako «Nafarroako Gobernu aurrerakoi eta plural baterako akordio politikoa 2023-2027» agiriak gobernu programa inspiratzen duten oinarrizko 12 esparru printzipio jasotzen ditu. Printzipio horietako hirugarrenak hauxe dio: “Bakearen eta bizikidetzaren balioen alde egitea, hori baita proiektu

politiko guztiz demokratiko guztien lehen betebeharra, eta aniztasuna aldarrikatzea gure Foru Komunitateko maila guztietan (gizartean, lurraldean, nortasunean, hizkuntzan, sexuan eta abarretan), aurrerabiderako balio bat den aldetik".

Jarraian, agiriak legegintzaldirako lehentasun politikoak aipatzen jarraitzen du, eta hauxe da horietako bat: "Bizikidetzararen Plan Estrategikoa garatzea, honako hauetan sakonduz: indarkeriari zilegitasuna kentzeko programak, elkarrizketa sustatzea arazo politiko eta sozialak konpontzeko bide gisa, iraganeko eta oraingo zeinahi jarduera eta/edo jarrera bortitz ez-legitimo gaitzesteko gizarte-adostasuna sustatzea, eta aniztasunarekiko errespetua bultzatzea iritzi eta ideologia ezberdinen artean, bai eta identitate, sexu-aukera eta genero-aukera, ikuspegi laiko eta erlijioso, kultura eta jatorri, eta hizkuntza ezberdinen artean ere".

Eremu hori "Memoria, bakea, bizikidetza eta giza eskubideak" izeneko 14. eremuan adierazitako helburuetan garatzen da. Bertan, helburu hau ezartzen da: «Nafarroako 2021-2024ko Bizikidetzarako I. Plan Estrategikoa garatzen jarraitzea, eta, hura burutzean, II. Plan Estrategikoa egitea, ahalik eta adostasun eta parte-hartze handienaren bitartez, Nafarroako Gobernuak garatutako bizikidetza-politika publikoei segida emateko».

### Agenda 2030en helburuekin bat etorriz

Adierazi behar da, Gobernuak Nafarroako elkarbizitza giroa hobetzeko egiten duen ahaleginaren berme, Nafarroako Gobernuak bere gain hartu dituela Agenda 2030ko Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH). Haren 16. helburuak ("Bakea, Justizia eta Erakunde Sendoak") bilatzen du bakearen kulturan murgiltzen diren komunitateak eratzea, indarkeria baztertuz gatazkak konpontzeko tresna gisa, justizia garatuz giza eskubide indibidual eta kolektiboetan oinarrituta eta erakundeak indartuz egonkorrak izan daitezen eta herritarrek konfiantza izan dezaten haiengan.

### "Giza Eskubideak 75" ekimena

2023an, Nazio Batuek "Giza Eskubideak 75" ekimena sustatu eta gidatu zuen, 1948ko abenduaren 10ean Parisen aldarrikatutako Giza Eskubideen Adierazpena eguneratzeko ahaleginean.

"Giza eskubideak 75" ekimenak hiru helburu nagusi zituen: **unibertsaltasuna eta zatiezintasuna**, eskubide guztiak pertsona guztiendako aitortuz; **aurrerapena**, giza eskubideen errespetu zabal eta sakonagoa lortzen saiatuz, eta tokiko eta nazioko gobernuek giza eskubideak ezartzeko, arautzeko eta monitorizatzeko **konpromisoa**.

2023an, ekimenak Nazio Batuetako 150 estatu kideren, GKEren, enpresaren eta erakunde bazkideren inplikazioa lortu zuen giza eskubideen arloko gai ugariren inguruan, ekarpen ugarirekin.

Gainera, Nazio Batuen Erakundeak, Giza Eskubideen aldeko goi komisarioaren taldearen bitartez, asmoa du ekimenaren ondorioak datozen urteetan gauzatzeko, eta prest dago giza eskubideen eta bizikidetzaren hobekuntzan lan egin eta beren lorpenak erakutsi nahi dituzten mundu osoko gobernu eta komunitateekin lankidetza estuan aritzeko.

# NAFARROAKO BIZIKIDETZAREN II. PLAN ESTRATEGIKORAKO ERRONKA BERRIAK

## Tokiko komunitateen protagonismoa

Tokiko komunitateek bizikidetza eraikitzeko egiten duten lana funtsezkoa da. Nafarroako herri eta hiriek funtsezko zeregina betetzen dute kideen gizarte kohesioa bultzatzeko, konfiantza handiagoko loturak indartuz eta elkarri laguntzeko sareak sustatuz. Era berean, toki entitateek, askotan, funtsezko zeregina betetzen dute gatazkak konpontzeko, bitartekari arituz eta elkarrizketan oinarritutako konponbideak lortuz.

Azken urteotan, toki entitate askok sustatu dituzte beren komunitateetan bizi kalitatea eta bizikidetza hobetzera bideratutako ekimen onak, plan espezifikoen eta horiek garatzeko lan espazioen antolaketaren bidez. Horretarako, herritarrek eta haien erakundeek beren lurraldeei eragiten dieten erabakietan aktiboki parte hartzea eta inplikatzea errazten dute. Ekimen horiek erreferentzia izan daitezke beste toki entitate batzuendako, eta, beraz, oso baliagarria izanen litzateke horiek aztertzea eta hedatzea.

Gero eta tokiko komunitate gehiagok egin behar diete aurre bizikidetzarako bereziki konplexuak diren arazo batzuei: diskurtso eta jarrera arrazistak, LGTBI+fobikoak eta matxistak ugaritzea; baliabide naturalen erauzketan oinarritutako jarduera ekonomikoak ezartzearen ondoriozko gatazkak; migratzaileen gero eta agerpen handiagoa behar bezala kudeatzeko ezintasuna; jokabide antidemokratikoak eta gizalegerik eza; indarkeria politikoaren hondar ekintzak... Horretarako, tokiko komunitateek baliabide tekniko eta ekonomiko propioak eta kanpokoak erabili behar dituzte, eta administrazio publiko autonomikoek eta estatukoek behar bezalako laguntza eman behar diete.

## Nafarroako garapen ereduan dauden giza eskubideak

Nafarroan aplikatzen diren garapen politiko, ekonomiko eta sozialeko ereduak eraginkortasunaren eta efizientziaren ikuspegitik ebaluatu beharko lirateke, baita jasangarritasunaren eta giza eskubideekiko errespetuaren ikuspegitik ere.

Ildo horretan, hainbat egiturazko erronka dago ebazteko, zeinak mehatxu diren legeetan jasotako eskubide indibidual eta kolektiboak aseko direla bermatzeko. Horietako batzuek, hala nola etxebizitza bat eskuratzeko eta erabiltzeko aukerarik ez izateak, enplegu duina eta segurua bermatzeak, ingurumen jasangarria, segurua eta kutsatu gabea lortzeak, nortasun politiko, erlijioso eta kulturalen arteko gatazkak, gizarte bazterkeria jasateko arriskuan dauden pertsonendako politika inklusiboak areagotu eta garatzeak, emakumeen aurkako indarkeria eta diskriminazioa ezabatzeak, klima aldaketaren ondorioei bermeekin aurre egiten dien trantsizio ekologikoak... iradokitzen dute beharrezkoa dela ereduak etengabe ebaluatzea eta egungo errealitatera egokitzea, eta agerian uzten dute eragile sozial, ekonomiko eta instituzional guztiek ahaleginak batu eta norabide berean jarraitzeko beharra.

Nazioartean ez ezik, hurbileko espazioetan ere, kezkatuta gaude giza eskubideen defendatzaileen gero eta kriminalizazio eta jazarpen handiagoarekin. Gure testuinguruan, kezkagarria da, halaber, larderiazko lege batzuk (adibidez, Mozal Legea) aplikatzea eskubide abusuak eta urraketak aldarrikatzen edo salatzen dituzten pertsonei.

### Indarkeria politikoa: memoria eta biktimen eskubideak

Demokraziaren eta zuzenbidearen ikuspegitik, adierazi behar da indarkeria politiko guztiak (frankismoaren ondoriozko indarkeria, indarkeria terrorista –bereziki ETArena–, eta eskuin muturreko taldeen eta funtzionario publikoen indarkeria) ez daudela inola ere justifikatuta. Indarkeria horiek erabiltzea legez kontrakoa eta bidegabea da erabat haien biktimendako eta horiek pairatu dituen gizartearendako.

Beraz, eta azken mendean Nafarroari gogor eragin dioten indarkeriazko gertakariei dagokienez (hala nola 1936ko kolpe militarra, diktadura frankista, eskuin eta ezker ideologietako talde erradikal armatuen terrorismoa –bereziki ETAk gauzatutakoa, haren iraupena eta intentsitatea kontuan hartuta–, eta GALek gauzatutako estatu terrorismoa eta torturak), gure gizartearen oroimenean geratu behar dute, ekintza ikaragarri eta justifikaezin gisa, kalte konponezinen sortzaile gisa eta irrazionalitatearen eta gorrotoaren adierazgarri gisa, gizarte batek eta haren kideek gatazkak konpontzeko izan beharreko moduaren aurkako praxi oker eta ez eraginkorren adibideak baitira.

Horrela, memoriari buruzko politikek ere premisa demokratiko horietan sakontzen lagundu behar dute, eta aurrera egin behar dute biktimek egiarako, justiziarako eta erreparaziorako, ez errepikatzeko bermerako eta memoriarako dituzten eskubideak betetzen. Alde horretatik, saihestu egin behar dugu biktimak berriz biktimizatzen dituen eta haiek sufriarazten dituen edozein gertaera.

### Emakumeen aurkako indarkeriaren eta diskriminazioaren goranzko joera

Azken bost urteetan, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna lortzeko atzerakada berri eta larria ikusten ari gara. Emakumeen aurkako indarkeriak eta diskriminazioak arazo kritikoa izaten jarraitzen dute, ez bakarrik toki mailan, baita mundu mailan ere. Horiek desagerrarazteko ahalegin handiak egin diren arren, premiazkoa da horiek iraunarazten dituzten egitura ekonomikoak, sozialak, kulturalak eta politikoak eraldatzea. Aldi berean, guztiz beharrezkoa da indarkeriaren biktima diren emakumeenganako babesa eta laguntza zabaltzea eta indartzea.

Hauxe da legegintzaldirako gobernu akordio politikoaren lehentasunetako bat: "Gizon eta emakumeen arteko egiazko berdintasuna bermatzea, Istanbulgo Hitzarmenean xedatutakoaren arabera. Hitzarmen hori Espainiak berretsi zuen, eta 2014ko abuztuaren 1etik dago indarrean. Haren arabera, emakumeen aurkako indarkeria giza eskubideen urraketa bat da, baita diskriminazio-modu bat ere, eta estatuak horren erantzuletzat hartzen dira, behar bezala erantzuten ez badute. Gainera, beren legeria hitzarmenaren betebeharretara egokitzera behartzen ditu sinatzaileak, eta hitzarmena egiaz aplikatzen dela ziurtatzeko mekanismoak ezartzera". Ildo beretik, benetako berdintasunaren bermea arlo horretan indarrean dagoen foru legerian dago babestuta (17/2019 Foru Legea, apirilaren 4koa, Emakumeen eta Gizonen arteko

Berdintasunari buruzkoa; eta 14/2015 Foru Legea, apirilaren 10ekoa, Emakumeen Kontrako Indarkeriari Aurre Egitekoa).

## Teknologia eta eskubide digitalak

Laneko eta aisialdiko ingurune digitaletan teknologiak garatu eta erabiltzeak eragin handia eta zuzena du erabiltzaileen oinarrizko eskubideetan. Teknologia digital horien aurrerapen azkarraren ondorioz, eskubide digitalak arriskuan egon daitezke erregulazio egokirik ez dagoelako, gure eguneroko bizitzan gero eta inbaditzaileagoak diren teknologiak ugaritzen direlako eta datu pertsonalen ustiapen komertziala egiten delako.

Zenbait teknologiak (adibidez, adimen artifiziala –AA–, Blockchain, Big Data eta Gauzen Internet –IOT–) eta mota guztietako sare sozialen eta plataforma digitalen ugaritzeak aukera ingurune bat eratzen dute, pertsonen prestakuntza eta hezkuntza hobetzen, gizarteratzea sustatzen eta parte-hartze demokratikoa eta justizia soziala hobetzen laguntzen ahal dutenak, behar bezala kudeatzen badira.

Baina, aldi berean, erronka teknologiko horiek giza eskubideak urratzeko arrisku larria sortu dute. Horregatik sortu da "eskubide digitalak" adierazpena: ingurune digitalean aplikatzen diren giza eskubideak dira. Garrantzitsuenak hauek dira: pribatutasunerako, diskriminaziorik ezerako, adierazpen askatasunerako, informaziorako, datuen eramangarritasunerako, segurtasun digitalerako eta deskonexiorako eskubideak.

Dagoeneko badira arau esparru batzuk, eskubide digitalak babesteko erreferentzia izaten ahal direnak. Adibidez, Europar Batasunak badu jada Datuak Babesteko Erregelamendu Orokor bat (DBEO), datu pertsonalak babesteko arau zorrotzak ezartzen dituena. Era berean, badago EBk proposatutako adimen artifizialaren gobernantza esparrua, adimen artifiziala modu etikoan eta giza eskubideak errespetatuz erabiltzen dela ziurtatzeko helburua duena.

## Errealitate faltsua (fake reality) neutralizatzea eta gizartean espiritu kritikoa bultzatzea

Komunikabideen zeregina funtsezkoa da demokraziaren beraren osasuna bermatzeko, betiere informazioa ondasun publikotzat eta eskubidetzat hartuta. Informazio egiazkoa eta kalitatezkoa izatea funtsezkoa da herritar prestatuak eta informatuak izateko, gai direnak gero eta konplexuagoa den eta bizikidetza ahultzen duten informazio faltsuek edo faltsutuek beteriko mundu honetan maneiatzeko. Komunikazioa eta informazioa ez dira gauza bera. Gaur egun, komunikazioaren booma dugu, non hainbat kanal, euskarri eta igorle baitaude, boten, algoritmoen eta abarren ondorioez gain. Baina, aldi berean, desinformazio handiko agertoki batean gaude. Komunikabide publiko eta pribatuek, informazioko profesionalen plantilla eta kode deontologikoak dituzten heinean, zeregin garrantzitsua dute bizikidetza espazioak sortzeko, kalitatezko informazioaren erreferente gisa eta beste komunikabide eta iturri batzuen kontrasterako edo sareetan zabaldutako edukien kontrasterako bide gisa. Administrazioak, prentsa askatasuna eta sektoreko dinamikak erabat errespetatuz eta demokraziaren sendotasuna babesteko helburu horrekin, hainbat ekintza antola ditzake komunikabideekin eta bere ekosistemako espazio, erakunde eta gizarte eragile desberdinekin lotuta, hala nola elkarte

edo elkargo profesionalekin, unibertsitateekin, komunikazio enpresekin, gizarte zibilarekin... Arazo sozial eta politiko bihurtu dira gezurrak, maltzurkeriak eta faltsukeriak gaurkotasuneko albisteetan, kalumniak eta gehiegikeria interesatuak, nagusiki erakunde eta gizabanako populisten eta eskuin muturrekoen propaganda sareen bidez banatuak eta sozializatuak. Errealitatea ezkutatzearen eta faltsutzearen helburu nagusia da biztanleriaren geruza jakin batzuetan aiherra, beldurra eta gorrotoa elikatzea, jarraitzaileak sortzeko, sistema demokratikoarekiko konfiantza ahultzeko eta eskubideen eta elkartasunaren politika sozialak zalantzan jartzeko.

Albiste faltsuen ezaugarri bereizgarrietako bat da albiste gehienetan gorroto diskurtsoarekin lotutako elementuak agertzen direla. Gorroto diskurtsoen ondorioek (kalte psikologikoa, erasoak eta indarkeria) ez diete soilik eragiten etniagatik, sexu orientazioagatik, generoagatik, ideologiagatik eta abarrengatik gorrotoaren biktima diren pertsonei edo kolektiboei; aitzitik, gizarte osoari eragiten diote, nahita murriztu nahi baitute giza eskubideak eta oinarrizko askatasunak berdintasun baldintzetan aitortzea edo gauzatzea.

Gezur eta errealitate faltsuen sorrera eta hedapen masibo hori neutralizatzeko bideak bilatu behar dira, eta gazte eta helduen hezkuntza sustatu, hainbat hedapen kanalen bidez guztioi iristen zaizkigun informazioen egiazkotasuna eta fidagarritasuna aztertzeko gai den pentsamendu kritikoa erabil dezaten.

### Kultura aniztasunaren eta bizikidetzaren erronka

Zalantzarik gabe, migrazio ziklo berriek berekin dakarten kultura aniztasunak bizikidetza multikulturalaren erronka jartzen du mende honetako gizarte erronken lehen postuetan. Eta horrek eragin handia du Nafarroan, erakarpen sozioekonomiko handiko testuinguru baten parte baita. Eskubideen eta ongizatearen Europa helburu ia mitologikoa da zenbait talde etnikorendako; izan ere, hainbat arrazoirengatik, bizi izateko eta finkatzeko esperientzia berriak bilatu behar izaten dituzte. Horri pertsona horien inguruko aporofobia gehitu behar zaio: beste kultura batekoak izateagatik ez ezik, pobreak izateagatik ere diskriminatzen dira.

Kultura aniztasuna egunerokotasun bihurtuko den gizarte baterantz goaz, baina oinarri hartzen ditugu erronka garrantzitsu hori beren gain hartzeko gai ez diren gizarte eta hezkuntza proposamenak. Hezkuntza monokulturaletan hazi garenez eta horietan babesten garenez, zailtasun handia dugu bestea bere osotasunean onartzeko, ez bada, asimilazio prozesu baten bidez, guk bakartzat eta egiazkotzat dugun hori bihurtu dela. Izan ere, zeinahi aldaketa mehatxutzat jotzen dugu. Horregatik, ezinbestekoa da gizarte eta hezkuntza politika publiko berrietan aurrera egitea, ez bakarrik politika formaletan, baita politika informaletan ere, bizikidetza eta gure bizitza komuna aberastea ahalbidetzeko.

### Bizikidetzarako hezkuntza eta kultura

Ez dago hezkuntza eta kultura baino tresna hoberik indarkeria politikoari, errealitate faltsuen hedapenari, gatazkak konpontzeko ezintasunari, matxismoari, arrazakeriari eta xenofobiari, LGTBI+fobiari, etxegabetasunaren aurkako jarrerari eta sexu indarkeriari aurre egiteko.

Haurrek eta gazteek errespetuan, arazoen ulermen emozional eta intelektualean eta espiritu kritikoan oinarritutako hezkuntza izan behar dute eskura. Eskolak, familiekin batera, eta hezkuntza ez formaleko beste espazio batzuek leku pribilegiatuak izan behar dute elkarrekin bizitzen esperimentatzeko eta ikasteko, gatazkei modu positiboan helduz eta konponduz.

Baina jasotako hezkuntza hori ez luke gerora ukatu beharko errespetatzen, hitz egiten eta desberdintasunak gainditzen ez dakien gizarte batek. Horregatik, eragile sozialek, ekonomikoek, politikoek eta, bereziki, Nafarroako Foru Komunitateko erakundeek erantzukizuna gure gain hartu, eta ikasitako balioei eutsiko dien era horiek balioztatu eta aberastuko dituen kultura bat elikatu beharko genuke.

**Bizikidetzari buruzko akordio, adostasun eta itun instituzional, politiko eta sozialak: aniztasuna, pluraltasuna eta eskubideak**

Demokraziaren osasunean sakontzeak bizikidetza hobetzera garamatza ezinbestean. Era berean, kalitatezko bizikidetza bideragarri egiteko lanak demokrazia eta haren sistema instituzionala indartzen laguntzen du neurri handi batean.

Nafarroako gizarteak itunen eta akordioen esparru estrategiko bat eraikitzen jarraitu behar du, ikuspegi anitzek ezinbestean dakartzaten gatazkak etengabe konpontzen direla bermatzeko. Esparru horrek erreferentzia izan beharko luke gatazka edo krisi handieneko uneetan, eta mekanismo nahikoak aurreikusi beharko lituzke inor kanpoan ez uzteko.

Bestalde, Nafarroan dagoen pluraltasun eta aniztasun zabalak (ideologikoa, identitarioa, funtzionala, kulturala, erlijiosoa edo laikoa, linguistikoa, sexuala) aukera eman behar digu gure komunitatea pertsona guztiendako aukera lurralde gisa baloratzeko, pertsona horien eskubideak eta identitateak errespetatuz eta erabat onartuz. Aitzitik, aniztasunetik eta pluraltasunetik eratorritako ohiko tirabirei heltzeko eta erantzuteko ekintzarik ezak bizikidetza haustea eragin dezake.

# 2. Nafarroako Bizikidetzaren II. Plan Estrategikoaren oinarriak

Nafarroako gaur egungo bizikidetzari buruzko azterketan sei errealitate nabarmentzen dira; konplexuak eta garrantzitsuak dira, eta, horregatik, arreta berezia eta lehentasunezkoa eskatzen dute. Honako hauek dira:

- Giza eskubideak aplikatzea.

- Identitate desberdinen arteko bizikidetza, sexu eta genero aukera desberdinen artekoa, hizkuntzen artekoa, ikuspegi laiko eta erlijioso desberdinen artekoa, ideologia ezberdinen artekoa, kultura eta jatorri desberdinen artekoa.
- Frankismoaren, terrorismoaren eta indarkeria politikoaren biktimen eskubideak onartu eta aplikatzea.
- Memoria kritikoa, inklusiboa eta integrala eraikitzea.
- Geure burua hezteko eta ikasteko beharra, elkarrekin bizitzeko.
- Erakundeen zeregina, bizikidetzaren erreferentzia izateko.

Seiak benetako erronkak dira, eta haiek ongi gainditzearen araberakoa izanen da, hein handi batean, gure bizikidetza etorkizunean. Horregatik, gai horiek pisu handia dute Nafarroako Bizikidetzaren II. Plan Estrategikoko helburu orokor eta espezifikoak egituratuko dituzten ardatz estrategikoen definizioan, Bizikidetzaren I. Plan Estrategikoarekin jarraituta.

Bizikidetzaren Plan Estrategikoaren ikuspegi integrala bizikidetza zabal eta multifaktorialean oinarritua egonik, izaera orokorra ematen dio dokumentu honi, zeinak Nafarroako Gobernuaren beste plan eta estrategia sektorial batzuk baititu osagarri, hala nola Arrazismoaren eta Xenofobiaren aurkako Borrokarako Plana, Kulturen arteko Bizikidetzarako Nafarroako Estrategia, Berdintasunerako 2022-2027rako Plana, LGTBI+ Ekintza Plana, Partaidetza Plana, Euskararen Plan Estrategikoa, Gazteriaren Plana eta Gizarteratzearen arloko Plana. Gainera, plan hori tokiko entitateekin partekatu behar da, herritarrengandik gertuen dauden erakundeak baitira, beren espazioetan bizikidetza bermatzen dutenak.

# 3. Nafarroako bizikidetzaren AMIA analisia

AMIA lau analisi kategoriari dagokion akronimoa da: ahuleziak, mehatxuak, indarrak eta aukerak. Era honetako analisi estrategikoetan, ahuleziak eta indarrak honako hauei dagozkie: Nafarroako sistema eta antolaketa instituzionala, esparru juridikoa, sare sozial eta ekonomikoa, balio sistema eta dinamika soziokulturalak. Mehatxuak eta aukerak gure eskualdeko, mugaz gaindiko, estatuko, Europako eta nazioarteko koiuntura eta testuinguruei dagozkie.

| AHULEZIAK | INDARRAK |
|---|---|
| • Elkarren arteko aintzatespenik eza identitate desberdinak dituzten pertsonen artean.<br>• Neutraltasun erlijiosoari buruzko desadostasunak instituzioen artean.<br>• Migratzaileen gero eta agerpen handiagoa eta azkarragoa behar bezala kudeatzeko ezintasuna.<br>• Nafarroan dauden kulturetako pertsonen arteko ezagutzarik eta harremanik eza.<br>• Euskara sustatzeko konponbide egokia aurkitzeko zailtasunak.<br>• Genero desberdintasunak onartzeko erresistentziak.<br>• Zainketen krisia: zainketak gehienbat emakumeen esku geratzen dira.<br>• Egiturazko genero desberdintasuna, rolak eta estereotipoak betikotzen laguntzen duena.<br>• Jardun politikoan garrantzirik ez ematea bizikidetzari.<br>• Gizartea polarizatzen duen asaldu politikoa.<br>• Toki entitateek giza baliabiderik eta baliabide ekonomikorik ez izatea gizarte aldaketak kudeatzeko.<br>• Zeregin eta xede komunak dituzten erakundeen arteko koordinazio eskasa.<br>• Irizpide desberdinak indarkeriazko iraganaren memoria lantzeko.<br>• Terrorismoaren eta indarkeria politikoaren biktimen eskubideak bereizkeriarik gabe onartzeko erresistentziak.<br>• Terrorismoaren eta indarkeria politikoaren biktimak berriz biktimizatzen dituzten elementuak egotea.<br>• Terrorismoaren eta indarkeria politikoaren biktimen manipulazio politikoa.<br>• Hezkuntza komunitatean biktima hezitzaileen programa ikasgeletan garatzeko segurtasunik eza. | • Komunitatean pluraltasun politiko, sozial, identitario eta linguistiko handia egotea.<br>• Itun politiko eta sozialen kultura.<br>• Inbertsio sozial handia, eta eskubideen berdintasunerako neurri eta planak ongi garatzea.<br>• Pertsona guztien eskubideak onartzen dituen lege esparru oso aurreratua.<br>• Elkarte sare zabal eta sendoa.<br>• Ekonomia eta enpresa sare sendoa.<br>• Nafarroan, erlijio ezberdinen arteko bizikidetza errespetuzkoa eta baketsua.<br>• Hiru unibertsitate egotea, NU, NUP eta UNED, baita beste ikerketa zentro batzuk ere.<br>• Bizitza artistiko eta kultural aberatsa egotea Nafarroan eta bertako udalerrietan.<br>• Eskola bizikidetza eta esperientzia berritzaileak bultzatzen dituzten esparru juridikoa eta metodologiak.<br>• Giza eskubideak ez urratzeko eskakizuna ezinbesteko printzipio gisa onartzea pixkanaka.<br>• Indarkeria helburu politikoak lortzeko tresna gisa deslegitimatzeko beharra onartzea gehiengoak.<br>• Biktima guztien mina aitortzeari eta enpatia sustatzeko beharrari buruzko adostasun sozial eta politiko zabala.<br>• Adostasuna puntu honetan: ez dago oraintsuko historiari buruzko ezagutza objektiborik, eta gabezia horri aurre egiteko edukiak sartu behar dira hezkuntza sisteman. |

| | |
|---|---|
| • Denbora eta espazio falta hezkuntza ereduan, bizikidetza arazoak prebenitzeko eta horietan esku hartzeko.<br>• Batzuetan, hizkuntza ez oso eraikitzailea erakundeetan eta komunikabideetan egiten diren diskurtso eta eztabaida politikoetan.<br>• Pertsona guztien eskubide digitalak errespetatzen direla bermatzen duen erregulazio egokirik eza. | |
| **MEHATXUAK** | **AUKERAK** |
| • Fobiak, diskurtsoak eta jarrera arrazistak, homofoboak eta matxistak gero eta gehiago ugaritzea.<br>• Herritarrek gero eta desafekzio politiko eta instituzional handiagoa izatea.<br>• Errealitatea ezkutatzea eta faltsutzea, zeinak aiherra, beldurra eta gorrotoa elikatzen baititu.<br>• Sektore publikoa ahultzea eragiten duten joerak.<br>• Baliabide naturalen erauzketan oinarritutako jarduera ekonomikoak ezartzearen ondoriozko gatazkak.<br>• Diskurtso atzerakoiak, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloko aurrerapenen aurrean.<br>• Emakumeen kontrako indarkeriaren negazionismoa.<br>• Izaera populista-nazionalista duten mugimenduen gorakada, zeinek azpimarratzen baitute nazionalek lehentasuna dutela eskubideetan.<br>• Terrorismoari eta indarkeria politikoari buruzko memoria galtzea gizartean, eta gai horri buruzko ezjakintasuna belaunaldi gazteenetan. | • Giza eskubideen eta bizikidetzaren aldeko aliantza instituzionalak.<br>• Erakundeen bultzada hezkuntza hobea, inklusiboagoa eta bidezkoagoa erdiesteko.<br>• Erakundeen bultzada memoriaren, bizikidetzaren eta giza eskubideen aldeko eta arrazakeriaren eta xenofobiaren aurkako hezkuntza programak garatzeko.<br>• Gatazkak positiboki konpontzeko metodologietan, hala nola bizikidetza zirkuluetan, prestakuntza jaso duten irakasle gehiago egotea.<br>• Bizikidetzaren eremu guztietan elkarrizketarako eta parte-hartzerako espazioak indartzeko eta zabaltzeko jada hasitako bidea.<br>• Memoriaren, bizikidetzaren eta giza eskubideen politikak hobeki kokatzea gure komunitateko giza garapeneko elementu gisa.<br>• Politika eta aurrekontu sozialak areagotzea.<br>• Baliabide digitalak bizikidetzarako tresna gisa.<br>• Komunikabideak egiazkotasunean eta independentzian oinarritutako kontraste elementuak izateko aukera, albiste faltsu, gezur eta informazio diskriminatzaileei aurre egiteko. |

# 4. Helburu orokorra.

**“Nafarroa demokratiko, plural eta askotarikoan berdintasunean eta askatasunean oinarritutako bizikidetza eraikitzea, eta indarkeria tresna politiko gisa deslegitimatzea”**

Nafarroako Bizikidetzaren I. Plan Estrategikoan bezala, horixe da Nafarroako Bizikidetzaren II. Plan Estrategikoaren helburu orokorra. Helburu horrek azken helburu bat ezartzen du, eta diseinatutako ekintza guztiek horretan lagundu behar dute. Horrek esan nahi du gizarteak, erakundeek eta politikaren munduak baterako ikaskuntzarako eta lankidetzarako lan handia egin behar dutela bost balio/zutabe handiren inguruan: berdintasuna, askatasuna, demokrazia, pluraltasuna eta aniztasuna.

a) **Berdintasuna:** zutabe bat baita pertsona guztiek ekitatea eta eskubideak dituzten komunitate batean.

b) **Askatasuna:** bizimodua, identitatea, sinesmenak eta ideologia hautatzeko eta aukera horiek adierazteko, horriengatik bereizkeriarik jasan gabe.

c) **Demokrazia:** gizartea aldatzeko, indarkeriarik gabe, elkarrizketaren eta parte-hartze sozial eta politikoaren bidez.

d) **Pluraltasuna:** giza eskubideak errespetatzen badira, aukera pertsonal eta politiko guztiak dira zilegi.

e) **Aniztasuna:** aberastasuna, hazteko aukerak eta berrikuntza sozial eta kulturala ekartzen dituena.



# 5. Programazioaren printzipio estrategikoak.

Nafarroako Bizikidetzararen II. Plan Estrategikoak, bere proposamen metodologikoan, izaera estrategikoko jarduketa printzipio batzuk hartzen ditu kontuan, bere helburuak erabat garatzeko eta lortzeko beharrezkoak direnak.

Printzipio horiek honela zerrendatu eta azaldu dira:

- **Errespetua:** Pertsona, erakunde eta instituzio guztiak beren aniztasunean eta pluraltasunean aitortu eta onartzeko. Giza eskubideak pertsona guztiei aplikatzeko. Asaldua baretzeko. Indarkeria helburu pertsonal, sozial edo politikoak lortzeko tresna gisa desagerrarazteko.

- **Elkarrizketa eta enpatia:** Jarrerak aldatzeko eta elkar ulertzeko bide berriak irekitzeko. Konfrontazio zilegia eta lankidetza bateragarri egiten dituzten bideak ezartzeko. Pertsonengan eta erakundeetan konfiantza sortzeko. Enpatia, desberdin pentsatzen dutenen jarrera ulertzeko, nahiz eta bat ez etorri.

- **Lankidetza:** Instituzioen, gizarte erakundeen, enpresen eta herritarren ahaleginak koordinatzeko. Parte-hartzea eta giza eskubideen aplikazio eraginkorrarekiko konpromisoa areagotzeko. Gobernantza ona lortzeko.

- **Berrikuntza:** Bizikidetzaren erronketara hobeki egokitzen diren tresna eta lanabes berriak garatzeko. Komunitatearen ekintzak eta ekimenak hobetzen lagunduko duten soluzio tekniko eta finantzario berriak aurkitzeko. Plana aplikatzean sortzen diren ondorioak monitorizatzeko eta ebaluatzeko.

- **Ikuspegi berria:** Giza eskubideen, bizikidetzaren eta memoriaren politikek duten garrantzia kontuan hartzeko. Globalki eta tokian tokian pentsatzeko. Giza eskubideak jarduketa eremu guztietara zabaltzeko. Generoaren eta adinaren ikuspegiei bide iraunkorra emateko. Bizikidetzaren aldeko lanarekin jarraitzea bermatuko duen epe luzeko ikuspegia hartzeko. Itunak eta trantsizio ereduak eraikitzeko, etorkizuneko belaunaldiek aukera izan dezaten Nafarroan berdintasun handiagoz eta kalitatezko bizikidetzan bizitzeko.

# 6. Programazioa. Ardatz estrategikoak, helburuak eta ekintzak.

Nafarroako Bizikidetzaren II. Plan Estrategikoa I. Planaren lana jasotzen duten lehentasunezko hiru ardatzen inguruan egituratzen da. Ardatz horietako bakoitzak helburu orokor bat, berariazko helburu batzuk eta zenbait ekintza zehazten ditu.

Hiru ardatz horiek Planaren oinarriak jartzeko lanekin zuzenean lotutako helburuak eta jarduera proposamenak lantzen dituzte, eta gaur egun lehentasunezko esparrutzat jotzen dira Planak hartzen duen lan aldirako: 2025-2029.

Bestalde, Planaren zati operatiboena osatzen duten ekintzak irizpide hauen arabera hautatu dira: hautemandako beharretara hobeki egokitzea, premia, bideragarritasuna, aukera eta palanka efektua. Ekintza guztiak genero ikuspegi intersekzionaletik planteatuta daude.

| | |
|---|---|
| 1. ARDATZA | MEMORIA, BIKTIMAK ETA BIZIKIDETZA POLITIKOA |
| 2. ARDATZA | ANIZTASUNEAN ELKARREKIN BIZITZEA |
| 3. ARDATZA | BIZIKIDETZA ETA GIZA ESKUBIDEAK |

LEHENTASUNEZKO → HELBURU
HELBURU ESPEZIFIKOAK
EKINTZAK

# 1. ARDATZ ESTRATEGIKOA: MEMORIA, BIKTIMAK ETA BIZIKIDETZA POLITIKOA

*Azken hamarkadetako motibazio politikoko indarkeriak ez du jatorri politiko edo sozial bakarra. Ez du izaera bera, ez da gauzatzen kausa berberek eraginda, eta ez ditu ondorio berak. Horregatik, indarkeria guztiak ez dira sartzen ahal zaku berean, eta ez dira justifikatu behar bandoen arteko «akzio-erreakzio» prozesu modura. Aurrera egin beharko da indarkeria, testuinguru biktimologikoen arteko parekatzeak eta diluzioak justifikatzen ez dituzten kontakizunetan. Indarkeria ezin izanen da inoiz onartu helburu politikoetarako, eta edozein indarkeria errefusatu eta gaitzesten dela adierazi behar da.*

*Biktimak batere gizalegerik gabe erabili zituzten, larderian eta beldurrean oinarrituriko estrategia bat garatzeko. Objektiboki egiazta daiteke terrorismoaren eta indarkeria politikoaren biktima gehienek ez zutela indarkeriarik erabiltzen inolako bando hipotetikoren aurka.*

*Ikuspegi horretatik abiaturik, memoria kritikoak argi eta garbi lagundu dezake bereizten, batetik, herritarren aurka indarkeria erabiltzea erabaki zutenen erantzukizuna, eta, bestetik, sekula borroka biolentoaren aldeko hautua egin ez zuten biktimen errugabetasuna.*

*Funtsezkoa da memoria ikuspegi kritikoz aztertzea. Eremu horretan, narratibaren garrantzia funtsezkoa da, historia eta memoria ez baitira gauza bera. Horrek esan nahi du, alde batetik, ikerketa historikoan oinarritu behar dugula gertatutakoak zehatzago eta sakonago ezagutzeko, eta, bestetik, indarkeriazko gertaera horiek eta haien ondorioek gizartean, politikagintzan eta gizakiotan izaniko esanahiak aztertzeko eta interpretatzeko, guztia ere gertaeren zilegitasun eta justizia mailari buruzko balorazioak egin ahal izateko.*

*Ikuspegi kritiko horretatik, hain zuzen ere, Nafarroako gehiengo politikoa eta soziala bat dator gure zoru etiko komuna osatzen duten funtsezko bi tesi adieraztean:*

- *Azken 89 urteetan bizi izandako indarkeriak bidegabeak eta legez kontrakoak direla ulertu behar da, erasotzaileak edozein izanik ere.*

- *Izaera politikoko zuzeneko indarkeria horien egile guztiek, hau da, kaltegileek, modu larrian urratu zituzten biktimen giza eskubideak.*

*INDARKERIA GAITZESTEA; INDARKERIA EZIN DA INOIZ LEGITIMIZATU*

*Nafarroan 89 urtez izaniko indarkeriak ez du inolako zilegitasun demokratikorik (1936ko kolpistak, diktadura frankista, ETAren terrorismoa, eskuin muturreko taldeen terrorismoa, Estatuak egindako legez kanpoko indarkeria, kale borroka eta terrorismo jihadista), eta Foru Komunitate osoaren ahobatezko gaitzespena merezi du.*

*Biktima guztiek merezi dute aitortza, batzuk eta besteak alderatu gabe eta zenbaiti garrantzia kendu gabe. Aitortza hori egiteko kontuan hartu behar dira gertaturiko indarkeria guztiak eta horien testuinguru historiko, sozial eta politikoak. Ezinbestean aipatu behar da Nafarroak modu berezian sufritu duela ETAren terrorismoa.*

*Talde sozial, politiko eta instituzional guztiak lan egin beharko luke gertakari horiek ez errepikatzea bermatuko duten baldintzak sortzeko, guztia ere enpatia, aintzatespena eta biktimen eskubideak asebetetzea abiapuntu harturik.*

*Beharrezkoa da pertsona hauen eskubideak kontuan hartzea:*

a) *1936ko uztailaren 18ko estatu kolpearen eta ondorengo diktadura frankistaren ondoriozko biktimak.*
b) *Terrorismoaren biktimak, bereziki ETAren terrorismoarenak.*
c) *Eskuin muturreko taldeek eta funtzionario publikoek eragindako motibazio politikoko indarkeriaren biktimak.*

*Eremu sozial eta politikoan, etengabe aipatzen da memoria inklusibo eta integral bat eraikitzeko beharra ere, Nafarroan bizi izandako indarkeriaren kasu guzti-guztiak jasoko dituena. Terrorismoaren eta indarkeria politikoaren memoriak testuinguru guztietan biktima izan diren pertsona guztiak hartu behar ditu kontuan. Giza eskubideen ikuspegitik, nahiz eta indarkeriak desberdinak izan eta une politiko eta historiko desberdinetan gertatu, beharrezkoa da horiek guztiak aitortzea, eta bermatu egin behar dira, orobat, egia, justizia eta erreparazioa jasotzeko eta berriz ez gertatzeko eskubideak.*

*Azkenik, memoria transmititu egin behar da, eta memoriak bizikidetza hobea lortzeko ikaskuntza izan behar du, bizitako indarkeriazko gertakari larriak ez errepikatzeko.*

*Horretarako, helburu eta ekintza hauek ezarri dira:*

**1. HELBURU OROKORRA: Biktimen aitortza eta erreparazioa eta haien eskubideen asebetetzea bultzatzea.**

**HELBURU ESPEZIFIKOAK ETA EKINTZAK:**

**1.1 HE 1936ko kolpe militarraren eta diktadura frankistaren biktimen eskubideen aplikazioa bultzatzea.**

(1. EK.) 1.1.1 ekintza. Indarkeria frankistaren ondorioz desagertutakoen hobiak aurkitzeko eta haiek exhumatu eta berreskuratzeko urteko planarekin jarraitzea.

(2. EK.) 1.1.2 ekintza. Nafarroako DNA bankuan lagin gehiago jasotzea.

(3. EK.) 1.1.3 ekintza. Nafarroako hobien mapa urtero eguneratzea.

(4. EK.) 1.1.4 ekintza. Erregimen frankistak desagerrarazitako eta errepresaliatutako pertsonen errolda eguneratzea.

(5. EK.) 1.1.5 ekintza. Erbestera joan behar izan zuten nafarren errolda eguneratzea.

(6. EK.) 1.1.6 ekintza. Elkarte memorialistekin etengabeko elkarrizketarako eta lankidetzarako esparru bat bultzatzea.

(7. EK.) 1.1.7 ekintza. Memoria Demokratikoko Estatu Idazkaritzarekin lankidetzan aritzea gerra zibilaren eta diktadura frankistaren ondoriozko Biktimen Estatuko Errolda egiteko.

(8. EK.) 1.1.8 ekintza. Emakumeek frankismoaren biktimen memoriaren igorle gisa eta gizarte bidezkoago eta demokratikoago bat lortzeko duten zeregina aitortzea.

(9. EK.) 1.1.9 ekintza. Errepresio frankistaren memoria lekuen inguruko mugaz gaindiko memoria bultzatzea.

**1.2 HE Terrorismoaren biktimen eskubideen aplikazioa bultzatzea, bereziki ETAren terrorismoaren biktimenena.**

(10. EK.) 1.2.1 ekintza. Terrorismoaren biktimei buruzko lege proiektu bat aurkeztea, Nafarroako Parlamentura igortzeko. Legea garatzea, hala badagokio.

(11. EK.) 1.2.2 ekintza. Terrorismoaren biktimei laguntzeko plana finkatzea, bereziki ETAren biktimei zuzenduta, Memoria eta Bizikidetza Zuzendaritza Nagusiko Biktimen Arretarako Bulegoaren bidez.

(12. EK.) 1.2.3 ekintza. Etengabeko elkarrizketarako eta lankidetzarako esparru bat bultzatzea ETAren terrorismoaren eta beste terrorismo batzuen biktimen elkarteekin eta biktimekin.

(13. EK.) 1.2.4 ekintza. Lankidetza eta koordinazio egonkorra areagotzea Espainiako Gobernuko Barne Ministerioko Biktimei Laguntzeko Bulegoarekin.

(14. EK.) 1.2.5 ekintza. Nafarroako Gobernuak martxoaren 11ko ospakizuna bultzatzea (Terrorismoaren Biktimen Europako Eguna), gure Foru Komunitatean terrorismoaren biktima guztiak oroitzeko eta aitortzeko ekitaldi nagusi gisa.

(15. EK.) 1.2.6 ekintza. Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin akordio bat sustatzea, udalek berma dezaten, Nafarroako Gobernuarekin lankidetzan, beren udalerrietako espazio publikoak bizikidetza eremuak direla, ETAko kideen jarduera aitortu, idealizatu edo goraipatzen duen ekitaldi, mezu edo ikonografiarik gabekoak, eta gorroto mezurik edo indarkeria terrorista justifikatzen duenik gabekoak.

(16. EK.) 1.2.7 ekintza. Espazio publiko batean eta erakundeen ekimenez atentatu terrorista hilgarri bat gertatu zen lekua seinalatzen duten eta biktimen izena agertzen duten plakak, terrorismoaren biktimen oroimenez eta omenez eraikitako monumentuak eta haien ehorzketen lekuak memoria espazioak dira. Horrenbestez, herritarren errespeturik handiena merezi dute, eta behar bezalako babes administratiboa izan beharko dute.

(17. EK.) 1.2.8 ekintza. Memoriaren, Bakearen eta Bizikidetzaren aldeko Eskolen Sarearen esparruan unitate didaktikoak eta ikus-entzunezko materialak eskaintzea, ikasgeletara joaten diren terrorismoaren biktima hezitzaileekin batera eta “De la

mano/Eskutik" programaren bidez gazteek terrorismoaren eragina ulertzeko eta haiengan biktimekiko enpatia sustatzeko.

(18. EK.) 1.2.9 ekintza. Lankidetza instituzionalari eustea Terrorismoaren Biktimen Memoriarako Zentroa Fundazioarekin.

(19. EK.) 1.2.10 ekintza. Lankidetza hitzarmenei eustea eremu horretako elkarte eta erakundeekin, hala nola Terrorismoaren Biktimen Fundazioarekin edo Terrorismoaren Biktimen Elkartearekin.

**1.3 HE Motibazio politikoko indarkeriaren biktimen eskubideen aplikazioa bultzatzea.**

(20. EK.) 1.3.1 ekintza. Martxoaren 26ko 16/2019 Foru Legea garatzea, eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek eragindako motibazio politikoko ekintzen biktimen errekonozimenduari eta erreparazioari buruzkoa.

(21. EK.) 1.3.2 ekintza. Motibazio politikoko biktimei laguntzeko plana finkatzea, Memoria eta Bizikidetza Zuzendaritza Nagusiko Biktimen Arretarako Bulegoaren bidez.

(22. EK.) 1.3.3 ekintza. Etengabeko elkarrizketarako eta lankidetzarako esparru bat finkatzea Estatuko funtzionarioen edo eskuin muturreko taldeen indarkeriaren biktimen elkarteekin edo biktimekin.

(23. EK.) 1.3.4 ekintza. Espazio publiko batean eta erakundeen ekimenez eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek eragindako motibazio politikoko indarkeriaren biktimatzat jotako pertsona bat hil zen lekua seinalatzen duten eta biktimen izena agertzen duten plakak, terrorismoaren biktimen oroimenez eraikitako monumentuak eta haien ehorzketen lekuak memoria espazioak dira. Horrenbestez, herritarren errespeturik handiena merezi dute, eta behar bezalako babes administratiboa izan beharko dute.

(24. EK.) 1.3.5 ekintza. Memoriaren, Bakearen eta Bizikidetzaren aldeko Eskolen Sarearen esparruan unitate didaktikoak eta ikus-entzunezko materialak eskaintzea, ikasgeletara joaten diren motibazio politiko indarkeriaren biktima hezitzaileekin batera eta "De la mano/Eskutik" programaren bidez giza eskubideen urraketaren eragina ulertzeko.

(25. EK.) 1.3.6 ekintza. Lankidetza hitzarmenei eustea eremu horretako elkarte eta erakundeekin, hala nola Egiari Zor Fundazioarekin.

**1.4 HE Terrorismoaren eta indarkeria politikoaren biktimen aitortza sozial eta instituzionala bultzatzea.**

(26. EK.) 1.4.1 ekintza. Gobernuko erakundeek toki entitateekin, biktimen elkarteekin eta memoria elkarteekin batera sustatutako edo antolatutako ekitaldietan parte hartzea, frankismoaren, terrorismoaren eta indarkeria politikoaren biktimak aitortzea helburu badute.

(27. EK.) 1.4.2 ekintza. Biktimen aitortzari eta terrorismoaren eta indarkeria politikoaren salaketari buruzko ekitaldi eta adierazpen instituzionalak sustatzea.

(28. EK.) 1.4.3 ekintza. Ekintzak sustatzea biktimen egiarako eta justiziarako eskubidean aurrera egiteko. Besteak beste, ekimenak sustatzea bide emateko **sekretu ofizialen legea** bete dadin gardentasunaren, proportzionaltasunaren eta informaziorako eskubidearen nazioarteko parametroekin bat eta gizarteak Estatuak egindako jarduerei dagokienez duen oinarrizko eskubidearekin bat.

**2. HELBURU OROKORRA: Frankismoarekin, terrorismoarekin –bereziki, ETAren terrorismoarekin– eta indarkeria politikoarekin kritikoa den memoria bat eraikitzea, biktimak gizartean eta erakundeetan aintzat hartzen lagunduko duena.**

**HELBURU ESPEZIFIKOAK ETA EKINTZAK:**

**2.1 HE Nafarroan izan diren indarkeria frankistaren, terrorismoaren –bereziki, ETAren terrorismoaren– eta indarkeria politikoaren dimentsio, arrazoi eta ondorioen inguruko ikerketa historiko eta soziologikoa sustatzea.**

(29. EK.) 2.1.1. ekintza. Memoriari, bizikidetzari eta giza eskubideei buruzko dokumentuen eta ikus-entzunezkoen funts gehiago sortzea, "Oroibidea" ataria sustatuz.

(30. EK.) 2.1.2 ekintza. Frankismoa, terrorismoa eta indarkeria politikoa zuzenean bizi izan zuten biktimen eta pertsonen testigantzak grabatu eta jendaurrean jartzea.

(31. EK.) 2.1.3 ekintza. NUPen dokumentu funtsarekin hitzarmen bat sinatzea, funtsak ikertzeko eta handitzeko.

(32. EK.) 2.1.4 ekintza. Hitzarmena NUPeko I-Communitas Ikerketa Institutuarekin, eremu horretako ikerketak eta jarduerak bultzatzeko.

(33. EK.) 2.1.5 ekintza. Artxibo historiko eta sozial berriak eskuratzea, defentsa, barne eta justizia ministerioekin, unibertsitateekin eta hainbat entitate publiko eta pribaturekin sinatutako akordio eta lankidetza hitzarmenen bidez.

(34. EK.) 2.1.6 ekintza. Indarkeria politikoari eta terrorismoari eta haren testuinguruei buruzko ikerketak sustatzea: emakumeen errepresioa frankismoan, Nafarroako erbesteratuen eragina 1936ko estatu kolpetik aurrera, frankismoak ekonomikoki errepresaliatutakoak, errepresioa eta indarkeria frankismo berantiarrean, giza eskubideen urraketak, gizartearen erresistentzia, eta abar.

(35. EK.) 2.1.7 ekintza. Eremu digitalean eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek eragindako indarkeria frankistaren, indarkeria terroristaren eta motibazio politikoko indarkeriaren gaiei buruzko informazio faltsuak zuzentzea sustatzea.

**2.2 HE Herritarrak sentsibilizatzea memoria kritikoak bizikidetza indartzeko duen garrantziaz.**

(36. EK.) 2.2.1 ekintza. Sentsibilizazio eta dibulgazio programa bat egitea urtero, erakusketa, hitzaldi, eztabaida, jardunaldi eta abarretan oinarritua.

(37. EK.) 2.2.2 ekintza. Toki entitateei eta irabazi asmorik gabeko erakundeei laguntzak emateko deialdiak, memoriaren arloan sentsibilizazio proiektuak garatzeko.

(38. EK.) 2.2.3 ekintza. Sentsibilizazio jarduerak sustatzea, emakumeek terrorismoko eta indarkeria politikoko egoeretan izan duten eginkizuna ezagutarazteko.

**2.3 HE Espazio publikoak demokratizatzeko prozesuak indartzea.**

(39. EK.) 2.3.1 ekintza. Sinbologia frankistaren errolda handitzea, 2016an onartua, eta sinbologia frankista kentzeko programa gauzatzen jarraitzea, toki entitateekin lankidetzan.

(40. EK.) 2.3.2 ekintza. Memoria leku berriak eta memoria guneak onartzea eta sustatzea, toki entitateekin, memoria elkarteekin eta biktimen elkarteekin lankidetzan.

(41. EK.) 2.3.3 ekintza. Memoria lekuen eta beste espazio batzuen inguruko ibilbide sarea ezagutaraztea.

(42. EK.) 2.3.4 ekintza. Toki entitateekin, memoria elkarteekin eta biktimen elkarteekin lankidetzan aritzea, espazio publikoak eta memoria lekuak indarkeria politikoa edozein modutan onartzen, idealizatzen edo goresten duten ekintza, mezu edo ikonografia orotatik babesteko, bai eta gorroto mezuetatik eta terrorismoa eta indarkeria politikoa justifikatzen duten mezuetatik ere.

**2.4 HE Lankidetza sareak sortzea, autonomia erkidegoen artekoak eta estatu eta Europa mailakoak, memoria demokratikoaren garapenaren eta transmisioaren inguruan.**

(43. EK.) 2.4.1 ekintza. Lankidetza hitzarmenak sustatu eta garatzea hauekin: Memoria Demokratikoko Estatu Idazkaritza, EUROM, Memorial Democràtic, EAE edo Euroeskualdea…

(44. EK.) 2.4.2 ekintza. Lankidetza instituzionala sustatzea GOGORA Euskal Autonomia Erkidegoko Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuarekin, erkidego horrekin sinatutako lankidetza hitzarmenaren esparruan.

(45. EK.) 2.4.3 ekintza. Memoriaren eta bizikidetzaren inguruko Europako proiektuetan parte hartzea.

# 2. ARDATZ ESTRATEGIKOA: ANIZTASUNEAN ELKARREKIN BIZITZEA

*Nafarroa erkidego askotarikoa eta plurala da hainbat eta hainbat arlotan: kulturan, ideologian, hizkuntzan, erlijioan. Nafarroaren aniztasunetik eta pluraltasunetik eratorritako gai batzuek erronka garrantzitsuak iradokitzen dituzte, eta tentsioak ere eragiten dituzte.*

*Bizikidetzaren eta giza eskubideen alorreko aditu espainiar zein nazioarteko batzuek diote politikak, erakundeek eta gizarte osoak ezberdinen arteko ituna erraztu behar dutela. Akordio sozial eta politiko hori ez da «erasorik ez egiteko» itun hutsa, ezpada eraikuntza positibokoa, Foru Komunitateko errealitate guztien eskubide eta betebeharren berdintasunean oinarrituriko errespetu eta begirune esparru egonkorra eman beharko lukeena.*

*Giza eskubideekiko errespetua, jatorri etniko, sexu, sexu edo genero orientazio, hizkuntza, erlijio, jatorri, posizio ekonomiko edo beste edozein zirkunstantziagatik inor bereizi gabe, gizarte askotariko horren bizikidetzaren oinarria da.*

*Nafarroaren kasuan, badirudi errealitate desberdinen arteko bizikidetzaren erronkak eremu hauetatik eratorritako gaietan ardazten direla nagusiki:*

*a) Ideologia eta identitate pluraltasuna.*
*b) Kultura aniztasuna.*
*c) Hizkuntza pluraltasuna.*
*d) Genero berdintasuna.*
*e) Sexu eta genero identitatearen aniztasuna.*
*f) Pluraltasun erlijiosoa eta laikoa.*
*g) Desgaitasuna.*

*Horiek horrela, 2. ardatz estrategikorako helburu eta ekintza hauek proposatzen dira:*

**3. HELBURU OROKORRA: Bizikidetza eredu berrietarako trantsizio prozesuak sustatzea, elkar onartzean eta aniztasuna eta pluraltasuna positiboki baloratzean oinarrituak.**

**HELBURU ESPEZIFIKOAK ETA EKINTZAK:**

**3.1 HE Harrerako eta kulturen arteko bizikidetzarako estrategia berriak bultzatzea.**

(46. EK.) 3.1.1 ekintza. Kulturen arteko bizikidetzarako estrategia garatzea, Nafarroako kultura errealitate desberdinen arteko bizikidetzan dauden erronkei aurre egiteko eta erakundeetan eta gizartean kulturartekotasunaren ikuspegia finkatzeko xedez lan egiteko.

(47. EK.) 3.1.2 ekintza. Nafarroara iristen diren migratzaileendako Harrera Planari jarraipena ematea.

(48. EK.) 3.1.3 ekintza. Arrazismoaren aurkako Borrokarako Plana garatzea, arrazismoaren eta xenofobiaren prebentzioa eta biktimendako arreta barne.

(49. EK.) 3.1.4 ekintza. Indartzea toki entitateek eta gizarte erakundeek duten konpromisoa kulturarteko bizikidetza sustatzeko jarduerak, planak eta zerbitzuak garatzeko, urtero deialdiak eginez dirulaguntzak emateko toki entitateei eta gizarte erakundeei kulturarteko bizikidetzarako eta arrazismoaren eta xenofobiaren aurkako borrokarako.

(50. EK.) 3.1.5 ekintza. Gizarte erakundeek nazioarteko babesa eskatzen duten migratzaileei eta errefuxiatuei harrera egiteko eta laguntzeko ekintzak eta proiektuak garatzeko konpromisoa sustatzea, irabazi asmorik gabeko gizarte ekimeneko erakundeendako dirulaguntzen deialdien bidez, migratzaileei eta errefuxiatuei harrera egiteko eta laguntzeko proiektuetarako.

(51. EK.) 3.1.6 ekintza. Biztanleriaren eta ijito erakundeen parte-hartze eraginkorra bultzatzea, eremu politiko, ekonomiko, sozial eta kulturalean beren bizitza baldintza eta aukera berdinetan garatu ahal izan dezaten.

(52. EK.) 3.1.7 ekintza. Ijitoen historiaren eta kulturaren ezagutza eta hedapena sustatzea, aintzatespena eta adiskidetze soziala errazteko.

(53. EK.) 3.1.8 ekintza. Kontsultarako eta parte-hartze instituzionalerako organoetan ijito herriaren ordezkaritza bermatzea.

**3.2 HE Erlijio eta kontzientzia askatasuna eta elkarrekiko errespetua bermatzea ikuspegi espiritual erlijiosoen eta laikoen artean.**

(54. EK.) 3.2.1 ekintza. Nafarroako Gobernuaren eta konfesio erlijiosoen arteko etengabeko elkarrizketarako esparru bat sortzea, neutraltasun laikoko esparru baterantz aurrera egin ahal izateko.

(55. EK.) 3.2.2 ekintza. Ikuspegi laikoen eta erlijiosoen arteko jendaurreko topaketak eta elkarrizketak sustatzea.

**3.3 HE Sexu eta genero aniztasunaren ikusgarritasuna eta gizarte normalizazioa areagotzea eta bereizkeriak desagerraraztea.**

(56. EK.) 3.3.1 ekintza. Sexu eta genero aniztasunagatiko bereizkeriaren aurkako ekintza programa bat garatzea, erakundeek eta esparru horretan lan egiten duten gizarte erakundeek batera jardunda.

(77. EK.) 3.3.2 ekintza. Sentsibilizazio programak, hezkuntza arlokoak eta osasun arlokoak garatzea, sexu aniztasuna bizikidetza balio gisa bermatzeko.

**3.4 HE Errespetua sustatzea eta identitate, ideologia eta iritzi aniztasunak biltzen dituzten balio demokratikoak indartzea.**

(58. EK.) 3.4.1 ekintza. Pluraltasuna eta adierazpen askatasuna balioesteko zabalkunde ekitaldiak antolatzea.

(59. EK.) 3.4.2 ekintza. Maila anitzetako topaketak egitea (herritarrak, adituak, erakundeak...), Nafarroako identitate errealitate ezberdinen arteko bizikidetzatik eratortzen diren gaiei buruz jarduteko.

**3.5 HE Nafarroako identitate errealitate ezberdinen arteko bizikidetza espazioak sustatzea.**

(60. EK.) 3.5.1 ekintza. Urteroko jardunaldiak, euskara Nafarroako gizarte osoak partekatu beharreko elkarbizitzaren balio gisa sustatzeari buruz.

(61. EK.) 3.5.2 ekintza. Maila anitzetako (herritarrak, adituak, erakundeak...) topaketak egitea, Nafarroako hizkuntza errealitate ezberdinen arteko bizikidetzatik eratortzen diren gaiei buruz jarduteko.

(62. EK.) 3.5.3 ekintza. Ikerketak/azterlanak egitea eta zabaltzea, Nafarroako herritarrek euskara sustatzeko politikei, motibazioei eta balizko elkarguneei buruz dituzten jarrerak aztertzeko.

(63. EK.) 3.5.4 ekintza. Ezagutza sortzea Nafarroako hizkuntza aniztasunari buruzko txostenen bidez.

(64. EK.) 3.5.5 ekintza. Nafarroako hainbat eskualdetako gazteen –euskaldunak eta ez euskaldunak– arteko topaguneak prestatzea, edo belaunaldi ezberdinetako kideen artekoak, haien hizkuntza bizipenen inguruko elkarrizketa eta elkarri entzutea sustatzeko.

## 3. ARDATZ ESTRATEGIKOA: BIZIKIDETZA ETA GIZA ESKUBIDEAK

*Gaur egun, giza eskubideek eta demokraziak gero eta erronka handiagoei egin behar diete aurre, giza eskubideen mehatxu eta urraketa egoera global batean.*

*Eskubide guztiak pertsona guztiendako. Eskubide indibidualak dira, baina eskubide komunitario bihurtu behar dira, komunitatean bizi garelako. Guztien eskubideak errespetatu, babestu eta bermatu behar dira, eta arreta berezia jarri behar zaie beren eskubideen urraketa jasateko arrisku handiena duten kolektiboei. Giza eskubideak demokraziaren zimenduen parte dira, eta haien aplikazioaren araberakoa izanen da, neurri handi batean, Nafarroako bizikidetzaren kalitatea. Nafarroako Gobernuaren ikuspegitik, zeina bat baitator eragile sozial, politiko eta instituzionalenarekin, unibertsitateenarekin eta Foru Komunitateko adituenarekin, honako gai hau lehenetsi da giza eskubideak aplikatzeko:*

*Giza eskubideen aplikazioari garrantzi berezia ematea honako errealitate hauetan: terrorismoaren, frankismoaren eta indarkeria politikoaren biktimak, migratzaileak eta errefuxiatuak, ijitoak, egiturazko desberdintasun ekonomikoak ukitutakoak, diskriminazioa eta/edo indarkeria matxista jasaten duten emakumeak, LGTBI+ pertsonak, desgaitasuna dutenak, haurrak, nerabeak, adinekoak, buruko eritasuna dutenak, presoak, pluraltasun erlijiosoa eta laikoa, hizkuntza aniztasuna, ideologia eta identitate aniztasuna, ingurumen seguru, garbi, osasungarri eta jasangarrian bizitzeko eskubidea eta eskubide digitala.*

*Erakundeak eta politikagintza tresna garrantzitsuak dira komunitatea antolatzeko, eta haien eragina erabakigarria da bizikidetzak hartzen duen izaera modulatzeko. Nafarroari dagokionez, esan dezakegu alderdi politikoak, toki entitateak, Nafarroako Gobernua, Nafarroako Parlamentua eta erakunde horietan kokatzen diren pertsona guztiak direla eremu instituzional eta politiko espezifikoko eragile nagusiak.*

*Esan liteke demokrazia ez dela gatazkarik eza, baizik eta gatazka horiek kudeatzeko modu bat. Haren oinarrian, besteak beste, pluraltasuna errespetatzea ageri da. Demokrazia askotariko eta pluralista batek erakundeei eskatzen die bideak izan ditzala gatazkak adierazteko eta ebazteko.*

*Konbentzimendu demokratikotik abiatuta, beti errespetatu eta legitimatu behar da alderdi politiko guztien parte-hartzearen bidezko erakundeen konfigurazioa, norberaren aukera politikoetara gehiago edo gutxiago hurbiltzen dela ere. Hitzaren tokiak –hala nola udaletako eta kontzejuetako osoko bilkurak eta batzordeak, eta, adierazpen gorenean, Nafarroako Parlamentua– ahots eta ikuspegi desberdinak biltzeko, elkartzeko eta adierazteko agertokiak dira. Hori berezkoa du demokraziak. Baita bizikidetzak ere.*

*Erakundeen elkarrizketa aniztasun demokratikoko ariketa honetan ezartzen den dinamikaren emaitza gisa, lortzen da diskurtsoak, balioak eta portaera ereduak ezartzea, zeinak areagotuta eta biderkatuta iristen baitira komunitatera.*

*Oso garrantzitsuak dira politikagintzan eta erakunde lanean dihardutenen jarrera eta praxia, eta, balio demokratikoak ordezkatzeari begira, eredugarri izan beharko lukete. Erakundeek eta haiek osatzen dituzten pertsonek etengabe eta arretaz begiratu behar diote guztion ongiari, erkidegoaren giza garapenari. Politikaren eta erakundeen funtzio eredugarria da hori.*

*Ardatz estrategiko honen programazioan lehentasunezko lau elementu planteatzen dira: politikarekiko eta erakundeekiko mesfidantza eta desafekzioa, polarizazioa eta asaldua, itun kultura baten beharra eta gobernantza on baten garapena. Ildo horretan, hezkuntza da funtsezko bitartekoetako bat, maila guztietan, bakearen eta bizikidetzaren kultura eraikitzeko. Nazioartean adostasun handia sortzen du horrek.*

*Kontuan izanik haurtzaroan eta gaztaroan barneratzen direla balioak, arauak eta jokabide ereduak, batez ere elkarreraginean familiarekin, eskolarekin, hedabideekin eta sareekin, zentro erlijiosoekin eta berdinez osaturiko taldearekin (sozializazio eragile nagusiak),*

*komenigarria litzateke horiekin guztiekin hitzartzea plangintza, eta, hala, sektoreka bereizitako esku-hartzeen emaitzak hobetzea.*

*Horregatik, egindako lanari eman zaion bultzada eta Nafarroako hezkuntza sistemak duen eginkizuna kontuan hartzeaz gain, beharrezkoa da hezkuntza potentzial handiko beste hezkuntza espazio batzuk aintzat hartzea, hala nola eskola ingurunea, Internet eta sare sozialak, komunikabideak, kultura eta kirola.*

**4. HELBURU OROKORRA: Trebakuntza, hezkuntza eta sentsibilizazio ekimenak areagotzea eta hobetzea, sozializazio esparru guztietan bizikidetza sustatzeko.**

**HELBURU ESPEZIFIKOAK ETA EKINTZAK:**

**4.1 HE Memoria, bizikidetza eta giza eskubideen arloko heziketa proiektu bat sustatzea, Nafarroako ikastetxeetako eskola komunitate osoari zuzendua.**

(65. EK.) 4.1.1 ekintza. Memoriaren, Bakearen eta Bizikidetzaren aldeko Eskolen Sarea garatzea.

(66. EK.) 4.1.2 ekintza. Biktima hezitzaileen “Eskutik-De la Mano” programa bultzatzea.

(67. EK.) 4.1.3 ekintza. Unitate didaktikoak bultzatzea Hezkuntza Departamentuarekin.

(68. EK.) 4.1.4 ekintza. Estatu mailako hezkuntza sare bat bultzatzea, memoriaren inguruko hezkuntza proiektuak ezartzen laguntzeko.

(69. EK.) 4.1.5 ekintza. Hezkuntza Departamentuaren hezkidetza programa babesteko eta indartzeko ekintzak bultzatzea.

(70. EK.) 4.1.6 ekintza. Hezkuntza Departamentuaren proiektu sozioemozionala babesteko eta indartzeko ekintzak bultzatzea.

(71. EK.) 4.1.7 ekintza. “Koloretako eskolak” bultzatu eta garatzea, Migrazio Politiketako Departamentuak bultzatuta.

(72. EK.) 4.1.8 ekintza. Eguneratzea eta berrikustea 47/2010 Foru Dekretua, ikasleen eskubide eta betebeharrei eta bizikidetzari buruzkoa.

(73. EK.) 4.1.9 ekintza. “Aniztasuna aberastasun” hezkuntza proiektua sendotzea.

(74. EK.) 4.1.10 ekintza. “Bizikidetza zirkuluak” proiektua bultzatzea eta garatzea. Metodologia leheneratzailea ezartzea hezkuntza ereduan, norabide anitzeko harremanak indartzeko prebentzio tresna gisa.

(75. EK.) 4.1.11 ekintza. Hezkuntza tresnak garatzea, ikastetxe bateko bizikidetzaren arloko erronkak eta aukerak monitorizatzeko.

**4.2 HE Bizikidetzarako hezkuntza ez formaleko jarduerak sustatzea.**

(76. EK.) 4.2.1 ekintza. "Bakearen eta bizikidetzaren aldeko liburutegiak" programa bultzatzea.

(77. EK.) 4.2.2 ekintza. "Bizikidetzaren aldeko horma irudiak" proiektua bultzatzea, Nafarroako toki entitateekin lankidetzan, espazio publikoko hormek bizikidetza balioak transmititu ditzaten.

(78. EK.) 4.2.3 ekintza. Zirkulu errestauratiboen metodologiari buruzko prestakuntza unibertsitateetan, hezitzaileen eskoletan eta aisialdiko prestakuntza eskoletan.

(79. EK.) 4.2.4 ekintza. Bizikidetza zirkuluen udal proiektu integrala sortu, bultzatu eta garatzea.

(80. EK.) 4.2.5 ekintza. "Zer da bizikidetza?" erakusketa ibiltaria sortzea eta garatzea.

(81. EK.) 4.2.6 ekintza. Memoriarekin, bizikidetzarekin eta giza eskubideekin lotutako prestakuntza jarduerak sartzea "Nafarroako Gazteentzako Jardueren Eskola"n.

(82. EK.) 4.2.7 ekintza. Memoria, bizikidetza eta giza eskubideen arloko gaietan oinarrituta Europako boluntarioekin eta gazte boluntarioekin antolatutako lantegiak sustatzea.

(83. EK.) 4.2.8 ekintza. Balioetan hezteko eta kirolguneetan indarkeria prebenitzeko proiektua indartzea eta egitasmo horretan lankidetzan jardutea.

(84. EK.) 4.2.9 ekintza. Bizikidetza arloko prestakuntza proiektuak dituzten gazte kanpamentuak antolatzea, etorkizuneko bizikidetza eragileak sortzeko.

(85. EK.) 4.2.10 ekintza. Nafarroako Gazteriaren Institutuarekin batera eztabaida bati ekitea gazteei eta etorkizuneko bizikidetzari buruz.

**4.3 HE Interneten eta sare sozialen erabileran sen kritikoa sustatzea.**

(86. EK.) 4.3.1 ekintza. Trebakuntza tailerrak antolatzea, bereziki familiei, hezkuntza lanetan ari direnei eta gazteei zuzenduta.

(87. EK.) 4.3.2 ekintza. Bizikidetzarekin zerikusia duten eta teknologien eta sare sozialen erabileran agertzen diren gaiei buruzko sentsibilizazio kanpainak (albiste faltsuak, jarrerak eta balioak, arrazakeria eta jazarpena...).

(88. EK.) 4.3.3 ekintza. Lankidetza Nafarroako unibertsitateekin, eremu horretako ikerketak egiteko.

**4.4 HE Eguneroko bizikidetza hondatzen duten indarkeria sotil edo ikusezinak ikusaraztea eta prebenitzea.**

(89. EK.) 4.4.1 ekintza. Tratu onari buruzko kanpaina publikoak. Keinu txikien garrantzia nabarmenduko duten komunikazio ekimenak sustatzea –agur inklusiboa, errespetuzko hizkera, entzutea bultzatzen duen isiltasuna–, eguneroko zaintza bizikidetza politika gisa indartuta.

(90. EK.) 4.4.2 ekintza. Adierazle espezifikoak lantzea, bizikidetzarekin lotutako eguneroko mikroindarkeria egoerak detektatzeko, aztertzeko eta prebenitzeko aukera emanen dutenak.

**4.5 HE Komunikabideekiko lankidetza bultzatzea bizikidetza indartzeko lanean.**

(91. EK.) 4.5.1 ekintza. Hitzarmenak eta lankidetzak gaitzea, bizikidetzarekin eta kalitatezko kazetaritzarekin konprometitutako informazioko profesionalen prestakuntza sustatzeko, bai eta ikuspegi horretatik eztabaidatzeko eta hausnartzeko espazioak ere: Periodismo Constructivo institutua, Nafarroako Unibertsitate Publikoa (Unesco Katedra, I-Communitas), Nafarroako Unibertsitatea (Informazio Zientzien Fakultatea).

(92. EK.) 4.5.2 ekintza. “Bizikidetzaren aldeko kazetaritza” tailerra antolatzea komunikabideekin eta komunikabideendako, bizikidetza indartzeko orduan duten zeregina aztertzeko.

(93. EK.) 4.5.3 ekintza. Belaunaldi berrien prestakuntza kritikoa sustatzea gizarte erakundeekin eta eremu formaleko (Hezkuntza) eta ez formaleko (Gazteriaren Institutua, aisialdiko elkarteak eta kolektiboak) hezkuntza eragileekin, tailerren eta ikastaroen bidez, sare sozialen erabiltzaile eta komunikabideetako informazioaren kontsumitzaile izanen diren aldetik.

(94. EK.) 4.5.4 ekintza. Sinergiak sustatzea erakunde publikoekin eta gizarte ekimeneko erakundeekin (Iberifier, esaterako), helburu honekin: gezurren eta gorroto diskurtsoren hedapena prebenitzea desinformazioaren xede izan daitezkeen hainbat gaitan, hala nola generoaren eremuan; arrazakeria, xenofobia eta atzerritar jatorriko pertsonen estigmatizazioa prebenitzea; memoria historikoa lantzea...

(95. EK.) 4.5.5 ekintza. Ekimen eta programa horiek lurraldeka antolatzea Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin, GGKEen Koordinakundearekin, tokiko komunikabideen elkarteekin, hezkuntza sarearekin eta udaletako oinarrizko gizarte zerbitzuekin lankidetzan.

(96. EK.) 4.5.6 ekintza. Memoria eta Bizikidetza Zuzendaritza Nagusiaren eta Kanpo Ekintzarako Zuzendaritza Nagusiaren arteko lankidetza, Europar Batasunaren deialdien finantzaketa bilatzeko eta nazioarteko sareetan parte hartzeko, zeinek gorroto diskurtsoen aurkako egiazko komunikazioarekin eta albiste faltsuak sortu eta zabaltzearekin lotutako balioak lantzen baitituzte.

**5. HELBURU OROKORRA: Nafarroako erakundeen, politikaren, gizartearen eta ekonomiaren alorreko jardueretan giza eskubideak aplikatzeko mekanismoak bultzatzea.**

**HELBURU ESPEZIFIKOAK ETA EKINTZAK:**

**5.1 HE Giza eskubideekiko konpromisoa dakarten ekimen instituzional, sozial eta ekonomikoak sustatzea (giza eskubideak Nazio Batuen 1948ko Adierazpen Unibertsalean zehaztu ziren, bai eta horren ondorengo eguneratze eta arau garapenetan ere).**

(97. EK.) 5.1.1 ekintza. Irabazi asmorik gabeko entitateei laguntza emateko deialdia, giza eskubideekiko eta bizikidetzarekiko konpromisoa sustatzen duten proiektuak egiteko.

(98. EK.) 5.1.2 ekintza. Nafarroako toki entitateei laguntza emateko deialdia, giza eskubideekiko eta bizikidetzarekiko konpromisoa sustatzen duten proiektuak egiteko.

(99. EK.) 5.1.3 ekintza. Bakearen Nazioarteko Egunaren testuinguruan, ekitaldi bat antolatzea, bakearen, bizikidetzaren eta giza eskubideen arloan duen inplikazio eta konpromisoagatik nabarmendu den erakunde edo pertsona bat aintzatesteko.

(100. EK.) 5.1.4 ekintza. Giza Eskubideen Nazioarteko Egunaren inguruan jardunaldiak antolatzea, herritar guztiei zuzenduak, unibertsitateen, Giza Eskubideen Institutuen, gizarte erakundeen, administrazio publikoen eta abarren parte-hartzearekin.

(101. EK.) 5.1.5 ekintza. Giza eskubideei buruzko jardunaldi espezifikoak antolatzea, memoriaren, bakearen, bizikidetzaren eta giza eskubideen arloan beste autonomia erkidego eta Europako eskualde batzuekin sinatutako lankidetza hitzarmenen esparruan.

(102. EK.) 5.1.6 ekintza. Giza eskubideen arloan sentsibilizatzeko “Somos personas/Pertsonak gara” urteroko programa, Nafarroako ikastetxeei zuzendua, finkatzea, Nafarroako toki entitateen lankidetzarekin eta giza eskubideen alde lan egiten duten elkarte eta eragileen parte-hartzearekin.

(103. EK.) 5.1.7 ekintza. Nafarroako ikastetxeetako Lehen Hezkuntzako ikasleek garatutako “Giza Eskubideen aldeko kate ipuina” proiektua sendotzea.

**5.2 HE Giza eskubideen arloan erakundeen arteko lankidetza sustatzea eta indartzea.**

(104. EK.) 5.2.1 ekintza. Hitzarmena Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin, memoriaren eta bizikidetzaren arloan.

(105. EK.) 5.2.2 ekintza. Nafarroako Gobernuaren eta toki entitateen artean bizikidetza mahaiak sortzea, herriko elkarte, gizarte eta kultura sarearen parte-hartzearekin, bizikidetza hobetuko duten tokiko ibilbide orriak diseinatzeko.

(106. EK.) 5.2.3 ekintza. Giza eskubideen arloko lankidetza neurriak txertatzea Euskadirekin eta Kataluniarekin sinatutako hitzarmenetan, eta beste eskualde batzuekin hitzarmenak sinatzea sustatzea.

(107. EK.) 5.2.4 ekintza. Tokiko, estatuko, Europako eta nazioarteko erakundeekin etengabe lankidetzan aritzeko akordioak, helburu dutenak, besteak beste, giza eskubideak sustatzea eta defendatzea.

(108. EK.) 5.2.5 ekintza. Garapenerako Nazioarteko Lankidetzarako Espainiako Agentziaren-Nafarroako Gobernuaren Demokrazia-Memoria, Bakea eta Gatazkak Konpontzeko Sarean diseinatutako ekintzak garatu eta ezartzea.

(109. EK.) 5.2.6 ekintza. Nafarroan egoitza duten unibertsitateekin lankidetza eta baterako lana sendotzea, memoriaren, bizikidetzaren eta giza eskubideen arloan proiektu partekatuak ezartzeko.

(110. EK.) 5.2.7 ekintza. Lan mahai bat sustatzea, Nafarroako Bizikidetzaren II. Plan Estrategikoaren garapenari buruz eztabaidatzeko eta hausnartzeko gune gisa. Mahai horretan hainbat erakunde akademikok hartuko dute parte, hala nola I-Communitasek, Unesco Katedrak, Kultura eta Gizarte Institutuak, Eusko Ikaskuntzak eta Nafarroako Soziologia eta Politologia Elkargoak.

(111. EK.) 5.2.8 ekintza. Eusko Ikaskuntzarekin lankidetzan aritzea, “Nafarroan bizikidetzarako zubiak eraikitzen” proiektua garatzeko.

**5.3 HE Justiziaren esparruan gatazkak konpontzeko zerbitzu eta eredu berritzaileak sustatzea, aplikazio judizial eta penal hobea eta eraginkorragoa lortzeko.**

(112. EK.) 5.3.1 ekintza. Justizia leheneratzaile intrajudizial eta komunitarioa eskaintzeko zerbitzu bat garatzea, gatazkak konpontzeko molde komunitarioak sustatzeko eta, hala, arazo sozialak epaibideetatik ateratzeko.

(113. EK.) 5.3.2. ekintza. Zigor arloko tresnak eta betearazpen zerbitzu bat sustatzea, delituak egin dituzten pertsonak gizarteratu ahal izateko gizarte inklusioa bermatzen duten programen eta ekintzen bidez.

**<u>6. HELBURU OROKORRA:</u> Elkarrizketan eta itunetan oinarritutako prozesu instituzionalak bultzatu eta indartzea, eztabaidetan asaldura murriztuz eta gobernantza ona bultzatuz.**

**<u>HELBURU ESPEZIFIKOAK ETA EKINTZAK:</u>**

**6.1 HE Elkarrizketa demokratikoan erakundeek eta alderdi politikoek duten eredugarritasunari buruzko hausnarketa sozial eta instituzionala sustatzea.**

(114. EK.) 6.1.1. ekintza. Hainbat gairi buruzko mahai inguruak eta eztabaidak antolatzea: erakundeak eta bizikidetza, politika deslegitimatzearen arriskuak edo nola heldu polarizazioari eta asaldura politikoari.

**6.2 HE Gobernantza oneko sistema bat bultzatzea bizikidetzarako.**

(115. EK.) 6.2.1 ekintza. Gobernantza onari buruzko ikaskuntza jardunaldiak, adituen eta erakundeetako ordezkarien parte-hartzearekin.

(116. EK.) 6.2.2 ekintza. “Elkarrizketa politiko publikoa ez tenkatzea” ekintza. Elkarrizketa tailerrak, zeinetan ordezkari politiko eta instituzionalek, herritarrek eta informazioko eta komunikazioko profesionalek parte hartuko baitute.

**6.3 HE Kolektibo jakin batzuen aurkako diskriminazio, aurreiritzi, difamazio eta gorroto diskurtsoen eragina neutralizatzea.**

(117. EK.) 6.3.1 ekintza. “Bizikidetza gorrotorik gabe idazten da” programa egitea diskriminazio, aurreiritzi eta gorroto diskurtsoen aurka.

# 7. Ekintzen jarraipen taulak.

**1. ARDATZ ESTRATEGIKOA: MEMORIA, BIKTIMAK ETA BIZIKIDETZA POLITIKOA**

**1. HO:** Biktimen aitortza eta erreparazioa eta haien eskubideen asebetetzea bultzatzea

**1.1 HE 1936ko kolpe militarraren eta diktadura frankistaren biktimen eskubideen aplikazioa bultzatzea.**

| Zk. | Ekintzaren izena | Unitate arduraduna | Adierazleak | Aurrekontua (€) |
|---|---|---|---|---|
| 1. EK. | 1.1.1 ekintza Indarkeria frankistaren ondorioz desagertutakoen hobiak aurkitzeko eta haiek exhumatu eta berreskuratzeko urteko planarekin jarraitzea. | Memoria eta Bizikidetza Zuzendaritza Nagusia | Prospektatutako hobien kopurua<br>Desobiratze berrien kopurua<br>Identifikatutako pertsonen kopurua<br>Seinaleztatutako hobien kopurua | 240.000 |
| 2. EK. | 1.1.2 ekintza Nafarroako DNA bankuan lagin gehiago jasotzea. | Memoria eta Bizikidetza Zuzendaritza Nagusia | Jasotako lagin berrien kopurua | 200.000 |
| 3. EK. | 1.1.3 ekintza Nafarroako hobien mapa urtero eguneratzea. | Memoria eta Bizikidetza Zuzendaritza Nagusia | Eguneratzeen kopurua | 44.000 |
| 4. EK. | 1.1.4 ekintza Erregimen frankistak desagerrarazitako eta errepresaliatutako pertsonen errolda eguneratzea. | Memoria eta Bizikidetza Zuzendaritza Nagusia | Sartu berrien kopurua/sexua | 20.000 |
| 5. EK. | 1.1.5 ekintza Erbestera joan behar izan zuten nafarren errolda eguneratzea. | Memoria eta Bizikidetza Zuzendaritza Nagusia | Sartu berrien kopurua/sexua | 20.000 |
| 6. EK. | 1.1.6 ekintza Elkarte memorialistekin etengabeko elkarrizketarako eta lankidetzarako esparru bat bultzatzea. | Memoria eta Bizikidetza Zuzendaritza Nagusia | Egindako bileren kopurua<br>Erakunde parte-hartzaileen kopurua<br>Lankidetza mota | 1.000 |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| | | | Formalizatutako akordioen kopurua / Akordio motak | |
| 7. EK. | 1.1.7 ekintza Memoria Demokratikoko Estatu Idazkaritzarekin lankidetzan aritzea gerra zibilaren eta diktadura frankistaren ondoriozko Biktimen Estatuko Errolda egiteko. | Memoria eta Bizikidetza Zuzendaritza Nagusia | Egindako bileren kopurua<br>Formalizatutako akordioen kopurua | 15.000 |
| 8. EK. | 1.1.8 ekintza Emakumeek frankismoaren biktimen memoriaren igorle gisa eta gizarte bidezkoago eta demokratikoago bat lortzeko duten zeregina aitortzea. | Memoria eta Bizikidetza Zuzendaritza Nagusia | Egindako ekintzen kopurua<br>Egindako ekintza motak | 15.000 |
| 9. EK. | 1.1.9 ekintza Errepresio frankistaren memoria lekuen inguruko mugaz gaindiko memoria bultzatzea. | Memoria eta Bizikidetza Zuzendaritza Nagusia | Egindako ekintzen kopurua<br>Egindako ekintza motak | 10.000 |

**1.2 HE Terrorismoaren biktimen eskubideen aplikazioa bultzatzea, bereziki ETAren terrorismoaren biktimenena.**

| Zk. | Ekintzaren izena | Unitate arduraduna | Adierazleak | Aurrekontua (€) |
|---|---|---|---|---|
| 10. EK. | 1.2.1 ekintza Terrorismoaren biktimei buruzko lege proiektu bat aurkeztea, Nafarroako Parlamentura igortzeko. Legea garatzea, hala badagokio. | Memoria eta Bizikidetza Zuzendaritza Nagusia | Lege proiektua aurkeztea<br>Legea onestea | 1.000 |
| 11. EK. | 1.2.2 ekintza Terrorismoaren biktimei laguntzeko plana finkatzea, bereziki ETAren biktimei zuzenduta, Memoria eta Bizikidetza Zuzendaritza Nagusiko Biktimen Arretarako Bulegoaren bidez. | Memoria eta Bizikidetza Zuzendaritza Nagusia | Lagundutako pertsonen kopurua/sexua<br>Erabilitako baliabideen kopurua/mota<br>Sentsibilizazio ekintzen kopurua | 1.000 |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| 12. EK. | 1.2.3 ekintza Etengabeko elkarrizketarako eta lankidetzarako esparru bat bultzatzea ETAren terrorismoaren eta beste terrorismo batzuen biktimen elkarteekin eta biktimekin. | Memoria eta Bizikidetza Zuzendaritza Nagusia | Egindako bileren kopurua<br>Erakunde parte-hartzaileen kopurua<br>Formalizatutako akordioen kopurua / Akordio motak | 2.000 |
| 13. EK. | 1.2.4 ekintza Lankidetza eta koordinazio egonkorra areagotzea Espainiako Gobernuko Barne Ministerioko Biktimei Laguntzeko Bulegoarekin. | Memoria eta Bizikidetza Zuzendaritza Nagusia | Formalizatutako akordioen kopurua/mota<br>Bileren kopurua | 1.500 |
| 14. EK. | 1.2.5 ekintza Nafarroako Gobernuak martxoaren 11ko ospakizuna bultzatzea (Terrorismoaren Biktimen Europako Eguna), gure Foru Komunitatean terrorismoaren biktima guztiak oroitzeko eta aitortzeko ekitaldi nagusi gisa. | Memoria eta Bizikidetza Zuzendaritza Nagusia | Jarduera gauzatzea | 1.500 |
| 15. EK. | 1.2.6 ekintza Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin akordio bat sustatzea, udalek berma dezaten, Nafarroako Gobernuarekin lankidetzan, beren udalerrietako espazio publikoak bizikidetza eremuak direla, ETAko kideen jarduera aitortu, idealizatu edo goraipatzen duen ekitaldi, mezu edo ikonografiarik gabekoak, eta gorroto mezurik edo indarkeria terrorista justifikatzen duenik gabekoak. | Memoria eta Bizikidetza Zuzendaritza Nagusia | Lortutako akordioen kopurua/mota<br>Toki entitateek egindako jarduketen kopurua/mota | 11.000 |
| 16. EK. | 1.2.7 ekintza Espazio publiko batean eta erakundeen ekimenez atentatu terrorista hilgarri bat gertatu zen lekua seinalatzen duten eta biktimen izena agertzen duten plakak, terrorismoaren biktimen oroimenez eta omenez eraikitako monumentuak eta haien | Memoria eta Bizikidetza Zuzendaritza Nagusia | Egindako ekintzen kopurua/mota | 5.500 |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| | ehorzketen lekuak memoria espazioak dira. Horrenbestez, herritarren errespeturik handiena merezi dute, eta behar bezalako babes administratiboa izan beharko dute. | | | |
| 17. EK. | 1.2.8 ekintza Memoriaren, Bakearen eta Bizikidetzaren aldeko Eskolen Sarearen esparruan unitate didaktikoak eta ikus-entzunezko materialak eskaintzea, ikasgeletara joaten diren terrorismoaren biktima hezitzaileekin batera eta “De la mano/Eskutik” programaren bidez gazteek terrorismoaren eragina ulertzeko eta haiengan biktimekiko enpatia sustatzeko. | Memoria eta Bizikidetza Zuzendaritza Nagusia | Egindako jardueren kopurua/mota<br>Ikastetxe parte-hartzaileen (titulartasuna, hizkuntza eredua) kopurua/mota<br>Onuradunen kopurua/sexua<br>Emandako unitate didaktikoen kopurua<br>Parte-hartzaileen ebaluazio adierazlea | 40.000 |
| 18. EK. | 1.2.9 ekintza Lankidetza instituzionalari eustea Terrorismoaren Biktimen Memoriarako Zentroa Fundazioarekin. | Memoria eta Bizikidetza Zuzendaritza Nagusia | Lankidetza jardueren kopurua/mota | 1.500 |
| 19. EK. | 1.2.10 ekintza Lankidetza hitzarmenei eustea eremu horretako elkarte eta erakundeekin, hala nola Terrorismoaren Biktimen Fundazioarekin edo Terrorismoaren Biktimen Elkartearekin. | Memoria eta Bizikidetza Zuzendaritza Nagusia | Formalizatutako hitzarmenen kopurua<br>Lankidetza eremuen kopurua/mota | 130.000 |

## 1.3 HE Motibazio politikoko indarkeriaren biktimen eskubideen aplikazioa bultzatzea.

| Zk. | Ekintzaren izena | Unitate arduraduna | Adierazleak | Aurrekontua (€) |
|---|---|---|---|---|
| 20. EK. | 1.3.1 ekintza Martxoaren 26ko 16/2019 Foru Legea garatzea, eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek eragindako motibazio politikoko ekintzen biktimen errekonozimenduari eta erreparazioari buruzkoa. | Memoria eta Bizikidetza Zuzendaritza Nagusia | Legearen babespeko pertsonen kopurua/sexua<br>Tramitatutako espedienteen kopurua<br>Babespeko pertsonen kopurua/sexua | 30.000 |
| 21. EK. | 1.3.2 ekintza Motibazio politikoko biktimei laguntzeko plana finkatzea, Memoria eta Bizikidetza Zuzendaritza Nagusiko Biktimen Arretarako Bulegoaren bidez. | Memoria eta Bizikidetza Zuzendaritza Nagusia | Lagundutako pertsonen kopurua/sexua<br>Erabilitako baliabideen kopurua/mota<br>Sentsibilizazio ekintzen kopurua | 1.000 |
| 22. EK. | 1.3.3 ekintza Etengabeko elkarrizketarako eta lankidetzarako esparru bat finkatzea Estatuko funtzionarioen edo eskuin muturreko taldeen indarkeriaren biktimen elkarteekin edo biktimekin. | Memoria eta Bizikidetza Zuzendaritza Nagusia | Egindako bileren kopurua<br>Erakunde parte-hartzaileen kopurua<br>Formalizatutako akordioen kopurua / Akordio motak | 1.500 |
| 23. EK. | 1.3.4 ekintza Espazio publiko batean eta erakundeen ekimenez eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek eragindako motibazio politikoko indarkeriaren biktimatzat jotako pertsona bat hil zen lekua seinalatzen duten eta biktimen izena agertzen duten plakak, terrorismoaren biktimen oroimenez eraikitako monumentuak eta haien ehorzketen lekuak memoria espazioak dira. Horrenbestez, herritarren errespeturik handiena merezi dute, eta behar bezalako babes administratiboa izan beharko dute. | Memoria eta Bizikidetza Zuzendaritza Nagusia | Egindako ekintzen kopurua/mota | 5.500 |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| 24. EK. | 1.3.5 ekintza Memoriaren, Bakearen eta Bizikidetzaren aldeko Eskolen Sarearen esparruan unitate didaktikoak eta ikus-entzunezko materialak eskaintzea, ikasgeletara joaten diren motibazio politiko indarkeriaren biktima hezitzaileekin batera eta "De la mano/Eskutik" programaren bidez giza eskubideen urraketaren eragina ulertzeko. | Memoria eta Bizikidetza Zuzendaritza Nagusia | Egindako jardueren kopurua/mota<br>Ikastetxe parte-hartzaileen kopurua/mota<br>Onuradunen kopurua/sexua<br>Emandako unitate didaktikoen kopurua | 40.000 |
| 25. EK. | 1.3.6 ekintza Lankidetza hitzarmenei eustea eremu horretako elkarte eta erakundeekin, hala nola Egiari Zor Fundazioarekin. | Memoria eta Bizikidetza Zuzendaritza Nagusia | Formalizatutako hitzarmenen kopurua<br>Lankidetza eremuen kopurua/mota | 160.000 |

**1.4 HE Terrorismoaren eta indarkeria politikoaren biktimen aitortza sozial eta instituzionala bultzatzea.**

| Zk. | Ekintzaren izena | Unitate arduraduna | Adierazleak | Aurrekontua (€) |
|---|---|---|---|---|
| 26. EK. | 1.4.1 ekintza Gobernuko erakundeek toki entitateekin, biktimen elkarteekin eta memoria elkarteekin batera sustatutako edo antolatutako ekitaldietan parte hartzea, frankismoaren, terrorismoaren eta indarkeria politikoaren biktimak aitortzea helburu badute. | Memoria eta Bizikidetza Zuzendaritza Nagusia | Erakundeen parte-hartzea duten ekitaldien kopurua/mota | 2.250 |
| 27. EK. | 1.4.2 ekintza Biktimen aitortzari eta terrorismoaren eta indarkeria politikoaren salaketari buruzko ekitaldi eta adierazpen instituzionalak sustatzea. | Memoria eta Bizikidetza Zuzendaritza Nagusia | Ekitaldien kopurua/mota<br>Adierazpenen kopurua/mota | 6.000 |
| 28. EK. | 1.4.3 ekintza Ekintzak sustatzea biktimen egiarako eta justiziarako eskubidean aurrera egiteko. Besteak beste, ekimenak sustatzea bide emateko sekretu ofizialen legea bete dadin gardentasunaren, | Memoria eta Bizikidetza Zuzendaritza Nagusia | Ekimenen kopurua/mota | 1.500 |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| | proportzionaltasunaren eta informaziorako eskubidearen nazioarteko parametroekin bat eta gizarteak Estatuak egindako jarduerei dagokienez duen oinarrizko eskubidearekin bat. | | | |

**2. HELBURU OROKORRA: Frankismoarekin, terrorismoarekin –bereziki, ETAren terrorismoarekin– eta indarkeria politikoarekin kritikoa den memoria bat eraikitzea, biktimak gizartean eta erakundeetan aintzat hartzen lagunduko duena.**

**2.1 HE Nafarroan izan diren indarkeria frankistaren, terrorismoaren –bereziki, ETAren terrorismoaren– eta indarkeria politikoaren dimentsio, arrazoi eta ondorioen inguruko ikerketa historiko eta soziologikoa sustatzea.**

| Zk. | Ekintzaren izena | Unitate arduraduna | Adierazleak | Aurrekontua (€) |
|---|---|---|---|---|
| 29. EK. | 2.1.1 ekintza Memoriari, bizikidetzari eta giza eskubideei buruzko dokumentuen eta ikus-entzunezkoen funts gehiago sortzea, “Oroibidea” ataria sustatuz. | Memoria eta Bizikidetza Zuzendaritza Nagusia | Erositako liburu berrien kopurua<br>Dokumentu funts berrien kopurua<br>Ikus-entzunezko artxibo berrien kopurua | 576.000 |
| 30. EK. | 2.1.2 ekintza Frankismoa, terrorismoa eta indarkeria politikoa zuzenean bizi izan zuten biktimen eta pertsonen testigantzak grabatu eta jendaurrean jartzea. | Memoria eta Bizikidetza Zuzendaritza Nagusia | Argitaratutako testigantzen kopurua/mota<br>Pertsona parte-hartzaileen kopurua/sexua | 60.000 |
| 31. EK. | 2.1.3 ekintza NUPen dokumentu funtsarekin hitzarmen bat sinatzea, funtsak ikertzeko eta handitzeko. | Memoria eta Bizikidetza Zuzendaritza Nagusia | Hitzarmena formalizatzea<br>Ikertutako dokumentu funts berrien kopurua<br>Egindako ikerketa berrien kopurua/mota | 280.000 |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| 32. EK. | 2.1.4 ekintza Hitzarmena NUPeko I-Communitas Ikerketa Institutuarekin, eremu horretako ikerketak eta jarduerak bultzatzeko. | Memoria eta Bizikidetza Zuzendaritza Nagusia | Hitzarmena formalizatzea<br>Egindako ikerketen kopurua/mota<br>Egindako jardueren kopurua/mota | 750 |
| 33. EK. | 2.1.5 ekintza Artxibo historiko eta sozial berriak eskuratzea, defentsa, barne eta justizia ministerioekin, unibertsitateekin eta hainbat entitate publiko eta pribaturekin sinatutako akordio eta lankidetza hitzarmenen bidez. | Memoria eta Bizikidetza Zuzendaritza Nagusia | Ikertutako artxibo berrien kopurua<br>Lankidetza akordioa sinatu duten erakundeen kopurua/mota | 120.000 |
| 34. EK. | 2.1.6 ekintza Indarkeria politikoari eta terrorismoari eta haren testuinguruei buruzko ikerketak sustatzea: emakumeen errepresioa frankismoan, Nafarroako erbesteratuen eragina 1936ko estatu kolpetik aurrera, frankismoak ekonomikoki errepresaliatutakoak, errepresioa eta indarkeria frankismo berantiarrean, giza eskubideen urraketak, gizartearen erresistentzia, eta abar. | Memoria eta Bizikidetza Zuzendaritza Nagusia | Ikerketa berrien kopurua/mota<br>Sustapen jardueren kopurua/mota | 60.000 |
| 35. EK. | 2.1.7 ekintza Eremu digitalean eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek eragindako indarkeria frankistaren, indarkeria terroristaren eta motibazio politikoko indarkeriaren gaiei buruzko informazio faltsuak zuzentzea sustatzea. | Memoria eta Bizikidetza Zuzendaritza Nagusia | Egindako ekintzen kopurua/mota | 5.250 |

**2.2 HE Herritarrak sentsibilizatzea memoria kritikoak bizikidetza indartzeko duen garrantziaz.**

| Zk. | Ekintzaren izena | Unitate arduraduna | Adierazleak | Aurrekontua (€) |
|---|---|---|---|---|
| 36. EK. | 2.2.1 ekintza Sentsibilizazio eta dibulgazio programa bat egitea urtero, erakusketa, hitzaldi, eztabaida, jardunaldi eta abarretan oinarritua. | Memoria eta Bizikidetza Zuzendaritza Nagusia | Egindako jardueren kopurua/mota<br>Pertsona parte-hartzaileen kopurua/sexua<br>Parte-hartzaileen ebaluazio adierazlea | 280.000 |
| 37. EK. | 2.2.2 ekintza Toki entitateei eta irabazi asmorik gabeko erakundeei laguntzak emateko deialdiak, memoriaren arloan sentsibilizazio proiektuak garatzeko. | Memoria eta Bizikidetza Zuzendaritza Nagusia | Egindako deialdien kopurua<br>Entitate eskatzaileen kopurua/mota<br>Diruz lagundutako proiektuen kopurua/mota | 280.000 |
| 38. EK. | 2.2.3 ekintza Sentsibilizazio jarduerak sustatzea, emakumeek terrorismoko eta indarkeria politikoko egoeretan izan duten eginkizuna ezagutarazteko. | Memoria eta Bizikidetza Zuzendaritza Nagusia | Egindako jardueren kopurua/mota<br>Pertsona parte-hartzaileen kopurua/sexua | 100.000 |

**2.3 HE Espazio publikoak demokratizatzeko prozesuak indartzea.**

| Zk. | Ekintzaren izena | Unitate arduraduna | Adierazleak | Aurrekontua (€) |
|---|---|---|---|---|
| 39. EK. | 2.3.1 ekintza Sinbologia frankistaren errolda handitzea, 2016an onartua, eta sinbologia frankista kentzeko programa gauzatzen jarraitzea, toki entitateekin lankidetzan. | Memoria eta Bizikidetza Zuzendaritza Nagusia | Sartu berrien kopurua/mota<br>Kendutako elementuen kopurua/mota<br>Aldatutako elementu kopurua/mota | 8.000 |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| | | | Toki entitate parte-hartzaileen kopurua | |
| 40. EK. | 2.3.2 ekintza Memoria leku berriak eta memoria guneak onartzea eta sustatzea, toki entitateekin, memoria elkarteekin eta biktimen elkarteekin lankidetzan. | Memoria eta Bizikidetza Zuzendaritza Nagusia | Memoria leku berrien kopurua/mota<br>Sustapen ekintzen kopurua<br>Entitate parte-hartzaileen kopurua/mota | 80.000 |
| 41. EK. | 2.3.3 ekintza Memoria lekuen eta beste espazio batzuen inguruko ibilbide sarea ezagutaraztea. | Memoria eta Bizikidetza Zuzendaritza Nagusia | Zabalkunde ekintzen kopurua/mota | 31.250 |
| 42. EK. | 2.3.4 ekintza Toki entitateekin, memoria elkarteekin eta biktimen elkarteekin lankidetzan aritzea, espazio publikoak eta memoria lekuak indarkeria politikoa edozein modutan onartzen, idealizatzen edo goresten duten ekintza, mezu edo ikonografia orotatik babesteko, bai eta gorroto mezuetatik eta terrorismoa eta indarkeria politikoa justifikatzen duten mezuetatik ere. | Memoria eta Bizikidetza Zuzendaritza Nagusia | Lankidetza ekintzen kopurua/mota<br>Toki entitate parte-hartzaileen kopurua<br>Memoria elkarte / Biktimen elkarte parte-hartzaileen kopurua | 19.000 |

**2.4 HE Lankidetza sareak sortzea, autonomia erkidegoen artekoak eta estatu eta Europa mailakoak, memoria demokratikoaren garapenaren eta transmisioaren inguruan.**

| Zk. | Ekintzaren izena | Unitate arduraduna | Adierazleak | Aurrekontua (€) |
|---|---|---|---|---|
| 43. EK. | 2.4.1 ekintza Lankidetza hitzarmenak sustatu eta garatzea hauekin: Memoria Demokratikoko Estatu Idazkaritza, EUROM, Memorial Democràtic, EAE edo Euroeskualdea… | Memoria eta Bizikidetza Zuzendaritza Nagusia | Formalizatutako hitzarmenen kopurua<br>Erakunde parte-hartzaileen kopurua<br>Garatzen ari diren jarduketen eta/edo proiektuen kopurua/mota | 5.000 |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| | | | Amaitutako jarduketen eta/edo proiektuen kopurua/mota | |
| 44. EK. | 2.4.2 ekintza Lankidetza instituzionala sustatzea GOGORA Euskal Autonomia Erkidegoko Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuarekin, erkidego horrekin sinatutako lankidetza hitzarmenaren esparruan. | Memoria eta Bizikidetza Zuzendaritza Nagusia | Formalizatutako hitzarmenen kopurua<br>Erakunde parte-hartzaileen kopurua<br>Garatzen ari diren jarduketen eta/edo proiektuen kopurua/mota<br>Amaitutako jarduketen eta/edo proiektuen kopurua/mota | 2.000 |
| 45. EK. | 2.4.3 ekintza Memoriaren eta bizikidetzaren inguruko Europako proiektuetan parte hartzea. | Memoria eta Bizikidetza Zuzendaritza Nagusia | Proiektu kopurua/mota<br>Erakunde kopurua/mota | 37.500 |

**2. ARDATZ ESTRATEGIKOA: ANIZTASUNEAN ELKARREKIN BIZITZEA**

**3. HO** Bizikidetza eredu berrietarako trantsizio prozesuak sustatzea, elkar onartzean eta aniztasuna eta pluraltasuna positiboki baloratzean oinarrituak.

**3.1 HE Harrerako eta kulturen arteko bizikidetzarako estrategia berriak bultzatzea**

| Zk. | Ekintzaren izena | Unitate arduraduna | Adierazleak | Aurrekontua (€) |
|---|---|---|---|---|
| 46. EK. | 3.1.1 ekintza Kulturen arteko bizikidetzarako estrategia garatzea, Nafarroako kultura errealitate desberdinen arteko bizikidetzan dauden erronkei aurre egiteko eta erakundeetan eta gizartean kulturartekotasunaren ikuspegia finkatzeko xedez lan egiteko. | Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusia | Kulturarteko bizikidetzaren estrategia eraginkortasunez ezartzea (BAI/EZ)<br>Aurreikusitako ekintzen kopurua/mota<br>Hausnartutako ekintzen kopurua/mota<br>Egin diren ekintzen % | 1.117.126 (beste ekintza batzuk hartzen ditu barne: 49, 51, 52 eta 53) |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| 47. EK. | 3.1.2 ekintza Nafarroara iristen diren migratzaileendako Harrera Planari jarraipena ematea. | Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusia | Kulturarteko bizikidetzaren estrategia eraginkortasunez ezartzea (BAI/EZ)<br>Aurreikusitako ekintzen kopurua/mota<br>Hausnartutako ekintzen kopurua/mota<br>Egin diren ekintzen % | 3.974.310 (50 ekintza hartzen du barne) |
| 48. EK. | 3.1.3 ekintza Arrazismoaren aurkako Borrokarako Plana garatzea, arrazismoaren eta xenofobiaren prebentzioa eta biktimendako arreta barne. | Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusia | Kulturarteko bizikidetzaren estrategia eraginkortasunez ezartzea (BAI/EZ)<br>Aurreikusitako ekintzen kopurua/mota<br>Hausnartutako ekintzen kopurua/mota<br>Egin diren ekintzen % | 300.544 (94 ekintza hartzen du barne) |
| 49. EK. | 3.1.4 ekintza Indartzea toki entitateek eta gizarte erakundeek duten konpromisoa kulturarteko bizikidetza sustatzeko jarduerak, planak eta zerbitzuak garatzeko, urtero deialdiak eginez dirulaguntzak emateko toki entitateei eta gizarte erakundeei kulturarteko bizikidetzarako eta arrazismoaren eta xenofobiaren aurkako borrokarako. | Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusia | Dirulaguntza kopurua<br>Diruz lagundutako jarduketen kopurua/mota<br>Dirulaguntza jaso duten toki entitateen kopurua | 3.735.112 |
| 50. EK. | 3.1.5 ekintza Gizarte erakundeek nazioarteko babesa eskatzen duten migratzaileei eta errefuxiatuei harrera egiteko eta laguntzeko ekintzak eta proiektuak garatzeko konpromisoa sustatzea, irabazi asmorik gabeko gizarte ekimeneko erakundeendako dirulaguntzen deialdien bidez, migratzaileei eta | Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusia | Dirulaguntza kopurua<br>Diruz lagundutako jarduketen kopurua/mota<br>Dirulaguntza jaso duten toki entitateen kopurua | 650.000 (kontuan hartua |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| | errefuxiatuei harrera egiteko eta laguntzeko proiektuetarako. | | | 47.ekintzako aurrekontuan) |
| 51. EK. | 3.1.6 ekintza Biztanleriaren eta ijito erakundeen parte-hartze eraginkorra bultzatzea, eremu politiko, ekonomiko, sozial eta kulturalean beren bizitza baldintza eta aukera berdinetan garatu ahal izan dezaten. | Babes Sozialaren eta Garapenerako Lankidetzaren Zuzendaritza Nagusia | Egindako ekintzen kopurua/mota<br>Pertsona/genero/ijito kopurua<br>Ijitoen parte-hartzea duten erakundeen kopurua | 110.000 |
| 52. EK. | 3.1.7 ekintza Ijitoen historiaren eta kulturaren ezagutza eta hedapena sustatzea, aintzatespena eta adiskidetze soziala errazteko. | Memoria eta Bizikidetza Zuzendaritza Nagusia / Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusia / Babes Sozialaren eta Garapenerako Lankidetzaren Zuzendaritza Nagusia | Egindako ekintzen kopurua/mota | 1.000 |
| 53. EK. | 3.1.8 ekintza Kontsultarako eta parte-hartze instituzionalerako organoetan ijito herriaren ordezkaritza bermatzea. | Memoria eta Bizikidetza Zuzendaritza Nagusia / Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusia / Babes Sozialaren eta Garapenerako Lankidetzaren Zuzendaritza Nagusia | Egindako ekintzen kopurua/mota<br>Ijitoen parte-hartzea duten erakundeen kopurua | 1.000 |

**3.2 HE Erlijio eta kontzientzia askatasuna eta elkarrekiko errespetua bermatzea ikuspegi espiritual erlijiosoen eta laikoen artean.**

| Zk. | Ekintzaren izena | Unitate arduraduna | Adierazleak | Aurrekontua (€) |
|---|---|---|---|---|
| 54. EK. | 3.2.1 ekintza Nafarroako Gobernuaren eta konfesio erlijiosoen arteko etengabeko elkarrizketarako esparru bat sortzea, neutraltasun laikoko esparru baterantz aurrera egin ahal izateko. | Memoria eta Bizikidetza Zuzendaritza Nagusia | Lankidetza saioen kopurua<br>Konfesio erlijiosoen kopurua<br>Entitate parte-hartzaileen kopurua/mota | 2.250 |
| 55. EK. | 3.2.2 ekintza Ikuspegi laikoen eta erlijiosoen arteko jendaurreko topaketak eta elkarrizketak sustatzea. | Memoria eta Bizikidetza Zuzendaritza Nagusia | Topaketa kopurua/mota<br>Erakunde parte-hartzaileen kopurua<br>Pertsona parte-hartzaileen kopurua/sexua | 8.500 |

**3.3 HE Sexu eta genero aniztasunaren ikusgarritasuna eta gizarte normalizazioa areagotzea eta bereizkeriak desagerraraztea.**

| Zk. | Ekintzaren izena | Unitate arduraduna | Adierazleak | Aurrekontua (€) |
|---|---|---|---|---|
| 56. EK. | 3.3.1 ekintza Sentsibilizazioa aniztasunaren arloan eta sexu- eta/edo genero-orientazio, -adierazpen eta -identitateagatiko diskriminazioaren prebentzioaren arloan. | Nafarroako Berdintasunerako Institutua (NABI) | Egindako ekintzen kopurua/mota<br>Gizarte erakundeen kopurua/mota<br>Erakunde parte-hartzaileen kopurua/mota<br>Pertsona parte-hartzaileen kopurua/sexua | 241.188 |
| 57. EK. | 3.3.2 ekintza Nafarroako toki entitateentzako laguntzen deialdia, LGTBI+ politika publikoak bultzatzeko eta babesteko, bai eta berdintasuna eta | Nafarroako Berdintasunerako Institutua (NABI) | Egindako programen kopurua<br>Jarduketa eremuak<br>Egindako ekintzen kopurua/mota | 545.132 |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| | sexu- eta genero-aniztasunarekiko errespetua bultzatzen duten ekintzak garatzen dituzten elkarteentzako laguntzen deialdia ere. | | Pertsona parte-hartzaileen kopurua/sexua | |

**3.4 HE Errespetua sustatzea eta identitate, ideologia eta iritzi aniztasunak biltzen dituzten balio demokratikoak indartzea.**

| Zk. | Ekintzaren izena | Unitate arduraduna | Adierazleak | Aurrekontua (€) |
|---|---|---|---|---|
| 58. EK. | 3.4.1 ekintza Pluraltasuna eta adierazpen askatasuna balioesteko zabalkunde ekitaldiak antolatzea. | Memoria eta Bizikidetza Zuzendaritza Nagusia | Egindako jardunaldien kopurua<br>Pertsona parte-hartzaileen kopurua edo sexua<br>Parte-hartzaileen ebaluazio adierazlea | 11.000 |
| 59. EK. | 3.4.2 ekintza Maila anitzetako topaketak egitea (herritarrak, adituak, erakundeak...), Nafarroako identitate errealitate ezberdinen arteko bizikidetzatik eratortzen diren gaiei buruz jarduteko. | Memoria eta Bizikidetza Zuzendaritza Nagusia | Egindako topaketen kopurua<br>Erakunde eta kolektibo parte-hartzaileen kopurua/mota<br>Pertsona parte-hartzaileen kopurua/sexua<br>Parte-hartzaileen ebaluazio adierazlea | 3.000 |

**3.5 HE Nafarroako identitate errealitate ezberdinen arteko bizikidetza espazioak sustatzea.**

| Zk. | Ekintzaren izena | Unitate arduraduna | Adierazleak | Aurrekontua (€) |
|---|---|---|---|---|

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| 60. EK. | 3.5.1 ekintza Urteroko jardunaldiak, euskara Nafarroako gizarte osoak partekatu beharreko elkarbizitzaren balio gisa sustatzeari buruz. | Euskarabidea | Egindako jardunaldien kopurua<br>Hizlarien profilen arteko oreka<br>Parte-hartzaileen kopurua / sexua / jatorrizko udalerria / euskararen ezagutza maila<br>Ekintzaren helburuak betetzen dira<br>Jardunaldietan hainbat gizarte eragile, ukitutako kolektibo, unibertsitate eta administrazio daude ordezkatuta.<br>Zabalkundea egokia izan da<br>Erabilitako hedabideak<br>Bilera egin zen lekua irisgarria zen<br>Parte-hartzaileek atzeraelikadura eta ebaluazio mekanismoak dituzte | 38.000 |
| 61. EK. | 3.5.2 ekintza Maila anitzetako (herritarrak, adituak, erakundeak...) topaketak egitea, Nafarroako hizkuntza errealitate ezberdinen arteko bizikidetzatik eratortzen diren gaiei buruz jarduteko. | Euskarabidea | Egindako jardunaldien kopurua<br>Hizlarien profilen arteko oreka<br>Parte-hartzaileen kopurua / sexua / jatorrizko udalerria / euskararen ezagutza maila<br>Ekintzaren helburuak betetzen dira<br>Jardunaldietan hainbat gizarte eragile, ukitutako kolektibo, unibertsitate eta administrazio daude ordezkatuta.<br>Zabalkundea egokia izan da<br>Erabilitako hedabideak | 18.000 |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| | | | Bilera egin zen lekua irisgarria zen<br>Parte-hartzaileek atzeraelikadura eta ebaluazio mekanismoak dituzte | |
| 62. EK. | 3.5.3 ekintza Ikerketak/azterlanak egitea eta zabaltzea, Nafarroako herritarrek euskara sustatzeko politikei, motibazioei eta balizko elkarguneei buruz dituzten jarrerak aztertzeko. | Euskarabidea | Egindako azterlanen kopurua/mota<br>Zabalkunde ekintzen kopurua/mota | 39.000 |
| 63. EK. | 3.5.4 ekintza Ezagutza sortzea Nafarroako hizkuntza aniztasunari buruzko txostenen bidez. | Euskarabidea | Egindako azterlanen kopurua/mota<br>Zabalkunde ekintzen kopurua/mota | 30.000 |
| 64. EK. | 3.5.5 ekintza Nafarroako hainbat eskualdetako gazteen –euskaldunak eta ez euskaldunak– arteko topaguneak prestatzea, edo belaunaldi ezberdinetako kideen artekoak, haien hizkuntza bizipenen inguruko elkarrizketa eta elkarri entzutea sustatzeko. | Euskarabidea | Egindako jardunaldien kopurua<br>Parte-hartzaileen kopurua / sexua / jatorrizko udalerria / euskararen ezagutza maila<br>Gazteen moderazioaren berri duten moderatzaile profesionalak egotea aurreikusten da.<br>Zabalkundea egokia izan da<br>Erabilitako hedabideak<br>Bilera egin zen lekua irisgarria zen<br>Ekarpen nagusiak biltzen dituen azken memoria bat egin da<br>Parte-hartzaileek atzeraelikadura eta ebaluazio mekanismoak dituzte | Zuzkidura ekonomikorik gabe |

**3. ARDATZ ESTRATEGIKOA: BIZIKIDETZA ETA GIZA ESKUBIDEAK**

**4. HO:** Trebakuntza, hezkuntza eta sentsibilizazio ekimenak areagotzea eta hobetzea, sozializazio esparru guztietan bizikidetza sustatzeko.

**4.1 HE Memoria, bizikidetza eta giza eskubideen arloko heziketa proiektu bat sustatzea, Nafarroako ikastetxeetako eskola komunitate osoari zuzendua.**

| Zk. | Ekintzaren izena | Unitate arduraduna | Adierazleak | Aurrekontua (€) |
|---|---|---|---|---|
| 65. EK. | 4.1.1 ekintza Memoriaren, Bakearen eta Bizikidetzaren aldeko Eskolen Sarea garatzea. | Memoria eta Bizikidetza Zuzendaritza Nagusia / Hezkuntza Zuzendaritza Nagusia | Egindako jardueren kopurua/mota<br>Ikastetxe parte-hartzaileen kopurua/mota<br>Egindako ikastaroen kopurua/mota<br>Pertsona parte-hartzaileen kopurua/sexua | 803.296 |
| 66. EK. | 4.1.2 ekintza Biktima hezitzaileen “Eskutik-De la Mano” programa bultzatzea. | Memoria eta Bizikidetza Zuzendaritza Nagusia | Egindako jardueren kopurua/mota<br>Ikastetxe parte-hartzaileen kopurua/mota<br>Pertsona parte-hartzaileen kopurua/sexua<br>Parte-hartzaileen ebaluazio adierazlea | 80.000 (contabilizado en la A17 y A24) |
| 67. EK. | 4.1.3 ekintza Unitate didaktikoak bultzatzea Hezkuntza Departamentuarekin. | Memoria eta Bizikidetza Zuzendaritza Nagusia / Hezkuntza Zuzendaritza Nagusia | Egindako unitate didaktikoen kopurua<br>Unitate didaktikoetako gaiak | 60.000 |
| 68. EK. | 4.1.4 ekintza Estatu mailako hezkuntza sare bat bultzatzea, memoriaren inguruko hezkuntza proiektuak ezartzen laguntzeko. | Memoria eta Bizikidetza Zuzendaritza Nagusia | Egindako proiektuen kopurua/mota<br>Sarean parte hartzen duten erakundeen kopurua | 120.000 |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| 69. EK. | 4.1.5 ekintza Hezkuntza Departamentuaren hezkidetza programa babesteko eta indartzeko ekintzak bultzatzea. | Hezkuntza Zuzendaritza Nagusia | Egindako ekintzen kopurua/mota | 478.009,82 |
| 70. EK. | 4.1.6 ekintza Hezkuntza Departamentuaren proiektu sozioemozionala babesteko eta indartzeko ekintzak bultzatzea. | Hezkuntza Zuzendaritza Nagusia | Egindako ekintzen kopurua/mota | 234.000 |
| 71. EK. | 4.1.7 ekintza "Koloretako eskolak" bultzatu eta garatzea, Migrazio Politiketako Departamentuak bultzatuta. | Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusia | Egindako ekintzen kopurua/mota<br>Ikastetxe parte-hartzaileen kopurua/mota<br>Parte-hartzaileen kopurua / sexua / haien eta gurasoen jatorria<br>Parte-hartzaileen ebaluazio adierazlea | 120.000 (kontuan hartua dago 48.ekintzan) |
| 72. EK. | 4.1.8 ekintza Eguneratzea eta berrikustea 47/2010 Foru Dekretua, ikasleen eskubide eta betebeharrei eta bizikidetzari buruzkoa. | Hezkuntza Zuzendaritza Nagusia | Dekretua eguneratzea | Zuzkidura ekonomikorik gabe |
| 73. EK. | 4.1.9 ekintza "Aniztasuna aberastasun" hezkuntza proiektua sendotzea. | Memoria eta Bizikidetza Zuzendaritza Nagusia | Egindako jardueren kopurua/mota<br>Ikastetxe parte-hartzaileen kopurua/mota<br>Aurkeztutako proiektuen kopurua/mota<br>Pertsona parte-hartzaileen kopurua/sexua | 49.677 |
| 74. EK. | 4.1.10 ekintza "Bizikidetza zirkuluak" proiektua bultzatzea eta garatzea. Metodologia leheneratzailea | Memoria eta Bizikidetza Zuzendaritza Nagusia | Egindako ekintzen kopurua/mota | 200.000 |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| | ezartzea hezkuntza ereduan, norabide anitzeko harremanak indartzeko prebentzio tresna gisa. | | Pertsona parte-hartzaileen kopurua/sexua | |
| 75. EK. | 4.1.11 ekintza Hezkuntza tresnak garatzea, ikastetxe bateko bizikidetzaren arloko erronkak eta aukerak monitorizatzeko. | Memoria eta Bizikidetza Zuzendaritza Nagusia / Hezkuntza Zuzendaritza Nagusia | Egindako hezkuntza tresnen kopurua/mota<br>Aplikatu duten ikastetxeen kopurua/mota<br>Egindako hezkuntza tresnen ebaluazio adierazlea | 20.000 |

**4.2 HE Bizikidetzarako hezkuntza ez formaleko jarduerak sustatzea.**

| Zk. | Ekintzaren izena | Unitate arduraduna | Adierazleak | Aurrekontua (€) |
|---|---|---|---|---|
| 76. EK. | 4.2.1 ekintza "Bakearen eta bizikidetzaren aldeko liburutegiak" programa bultzatzea. | Memoria eta Bizikidetza Zuzendaritza Nagusia / Kultura Zuzendaritza Nagusia (Liburutegi Zerbitzua) | Tailer kopurua/mota<br>Liburutegi parte-hartzaileen kopurua<br>Parte-hartzaileen kopurua/adina/sexua<br>Parte-hartzaileen ebaluazio adierazlea | 65.000 |
| 77. EK. | 4.2.2 ekintza "Bizikidetzaren aldeko horma irudiak" proiektua bultzatzea, Nafarroako toki entitateekin lankidetzan, espazio publikoko hormek bizikidetza balioak transmititu ditzaten. | Memoria eta Bizikidetza Zuzendaritza Nagusia | Egindako ekintzen kopurua<br>Toki entitate parte-hartzaileak<br>Parte-hartzaileen kopurua/adina/sexua | 50.000 |
| 78. EK. | 4.2.3 ekintza Zirkulu errestauratiboen metodologiari buruzko prestakuntza unibertsitateetan, hezitzaileen eskoletan eta aisialdiko prestakuntza eskoletan. | Memoria eta Bizikidetza Zuzendaritza Nagusia | Egindako ikastaroen kopurua:<br>Entitate parte-hartzaileen kopurua/mota | 60.000 |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| | | | Parte-hartzaileen kopurua/adina/sexua<br>Parte-hartzaileen ebaluazio adierazlea | |
| 79. EK. | 4.2.4 ekintza Bizikidetza zirkuluen udal proiektu integrala sortu, bultzatu eta garatzea. | Memoria eta Bizikidetza Zuzendaritza Nagusia | Ezarritako proiektuen kopurua/mota<br>Toki entitate parte-hartzaileak<br>Parte-hartzaileen kopurua/ sexua /adina | 40.000 |
| 80. EK. | 4.2.5 ekintza "Zer da bizikidetza?" erakusketa ibiltaria sortzea eta garatzea. | Memoria eta Bizikidetza Zuzendaritza Nagusia | Egindako erakusketen kopurua<br>Tokiak | 21.000 |
| 81. EK. | 4.2.6 ekintza Memoriarekin, bizikidetzarekin eta giza eskubideekin lotutako prestakuntza jarduerak sartzea "Nafarroako Gazteentzako Jardueren Eskola"n. | Memoria eta Bizikidetza Zuzendaritza Nagusia / Nafarroako Gazteriaren Institutua | Egindako jardueren kopurua/mota<br>Parte-hartzaileen kopurua/generoa/adina<br>Parte-hartzaileen ebaluazio adierazlea | 21.250 |
| 82. EK. | 4.2.7 ekintza Memoria, bizikidetza eta giza eskubideen arloko gaietan oinarrituta Europako boluntarioekin eta gazte boluntarioekin antolatutako lantegiak sustatzea. | Memoria eta Bizikidetza Zuzendaritza Nagusia / Nafarroako Gazteriaren Institutua | Antolatutako lantegien kopurua<br>Egindako jardueren kopurua/mota<br>Parte-hartzaileen kopurua/ sexua /adina<br>Parte-hartzaileen ebaluazio adierazlea | 75.000 |
| 83. EK. | 4.2.8 ekintza Balioetan hezteko eta kirolguneetan indarkeria prebenitzeko proiektua indartzea eta egitasmo horretan lankidetzan jardutea. | Memoria eta Bizikidetza Zuzendaritza Nagusia / Nafarroako Kirolaren Institutua | Egindako ekintzen kopurua/mota<br>Federazio eta klub parte-hartzaileen kopurua/mota<br>Parte-hartzaileen kopurua/ sexua /adina | 15.000 |
| 84. EK. | 4.2.9 ekintza Bizikidetza arloko prestakuntza proiektuak dituzten gazte kanpamentuak antolatzea, etorkizuneko bizikidetza eragileak sortzeko. | Memoria eta Bizikidetza Zuzendaritza Nagusia / Nafarroako Gazteriaren Institutua | Antolatutako kanpamentuen kopurua<br>Bizikidetzarekin lotutako jardueren kopurua/mota<br>Parte-hartzaileen kopurua/ sexua /adina | 24.000 |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| | | | Parte-hartzaileen ebaluazio adierazlea | |
| 85. EK. | 4.2.10 ekintza Nafarroako Gazteriaren Institutuarekin batera eztabaida bati ekitea gazteei eta etorkizuneko bizikidetzari buruz. | Memoria eta Bizikidetza Zuzendaritza Nagusia / Nafarroako Gazteriaren Institutua | Egindako eztabaiden kopurua | 7.000 |

**4.3 HE Interneten eta sare sozialen erabileran sen kritikoa sustatzea.**

| Zk. | Ekintzaren izena | Unitate arduraduna | Adierazleak | Aurrekontua (€) |
|---|---|---|---|---|
| 86. EK. | 4.3.1 ekintza Trebakuntza tailerrak antolatzea, bereziki familiei, hezkuntza lanetan ari direnei eta gazteei zuzenduta. | Memoria eta Bizikidetza Zuzendaritza Nagusia / Hezkuntza Zuzendaritza Nagusia | Egindako tailerren kopurua/mota<br>Parte-hartzaileen kopurua/ sexua /adina/jatorria<br>Parte-hartzaileen ebaluazio adierazlea | 60.000 |
| 87. EK. | 4.3.2 ekintza Bizikidetzarekin zerikusia duten eta teknologien eta sare sozialen erabileran agertzen diren gaiei buruzko sentsibilizazio kanpainak (albiste faltsuak, jarrerak eta balioak, arrazakeria eta jazarpena...). | Memoria eta Bizikidetza Zuzendaritza Nagusia | Egindako kanpainen kopurua/mota | 9.000 |
| 88. EK. | 4.3.3 ekintza. Lankidetza Nafarroako unibertsitateekin, eremu horretako ikerketak egiteko. | Memoria eta Bizikidetza Zuzendaritza Nagusia | Egindako ikerketen kopurua/mota<br>Lankidetza mota<br>Unibertsitate parte-hartzaileak: | 1.000 |

**4.4 HE Eguneroko bizikidetza hondatzen duten indarkeria sotil edo ikusezinak ikusaraztea eta prebenitzea.**

| Zk. | Ekintzaren izena | Unitate arduraduna | Adierazleak | Aurrekontua (€) |
|---|---|---|---|---|
| 89. EK. | 4.4.1 ekintza Tratu onari buruzko kanpaina publikoak. Keinu txikien garrantzia nabarmenduko duten komunikazio ekimenak sustatzea –agur inklusiboa, errespetuzko hizkera, entzutea bultzatzen duen isiltasuna–, eguneroko zaintza bizikidetza politika gisa indartuta. | Memoria eta Bizikidetza Zuzendaritza Nagusia | Egindako kanpainen kopurua/mota | 7.500 |
| 90. EK. | 4.4.2 ekintza Adierazle espezifikoak lantzea, bizikidetzarekin lotutako eguneroko mikroindarkeria egoerak detektatzeko, aztertzeko eta prebenitzeko aukera emanen dutenak. | Memoria eta Bizikidetza Zuzendaritza Nagusia | Adierazleen sistema egitea | 2.000 |

**4.5 HE Komunikabideekiko lankidetza bultzatzea bizikidetza indartzeko lanean.**

| Zk. | Ekintzaren izena | Unitate arduraduna | Adierazleak | Aurrekontua (€) |
|---|---|---|---|---|
| 91. EK. | 4.5.1 ekintza Hitzarmenak eta lankidetzak gaitzea, bizikidetzarekin eta kalitatezko kazetaritzarekin konprometitutako informazioko profesionalen | Memoria eta Bizikidetza Zuzendaritza Nagusia | Sinatutako hitzarmenen kopurua<br>Entitate parte-hartzaileen kopurua/mota | |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| | prestakuntza sustatzeko, bai eta ikuspegi horretatik eztabaidatzeko eta hausnartzeko espazioak ere: Periodismo Constructivo institutua, Nafarroako Unibertsitate Publikoa (Unesco Katedra, I-Communitas), Nafarroako Unibertsitatea (Informazio Zientzien Fakultatea). | | Lankidetza mota | 1.500 |
| 92. EK. | 4.5.2 ekintza "Bizikidetzaren aldeko kazetaritza" tailerra antolatzea komunikabideekin eta komunikabideendako, bizikidetza indartzeko orduan duten zeregina aztertzeko. | Memoria eta Bizikidetza Zuzendaritza Nagusia | Tailerra antolatzea.<br>Pertsona parte-hartzaileen kopurua/ sexua<br>Parte-hartzaileen ebaluazio adierazlea | 10.000 |
| 93. EK. | 4.5.3 ekintza Belaunaldi berrien prestakuntza kritikoa sustatzea gizarte erakundeekin eta eremu formaleko (Hezkuntza) eta ez formaleko (Gazteriaren Institutua, aisialdiko elkarteak eta kolektiboak) hezkuntza eragileekin, tailerren eta ikastaroen bidez, sare sozialen erabiltzaile eta komunikabideetako informazioaren kontsumitzaile izanen diren aldetik. | Memoria eta Bizikidetza Zuzendaritza Nagusia / Hezkuntza Zuzendaritza Nagusia / Nafarroako Gazteriaren Institutua | Egindako ekintzen kopurua/mota<br>Entitate parte-hartzaileen kopurua/mota<br>Parte-hartzaileen kopurua/ sexua /adina<br>Parte-hartzaileen ebaluazio adierazlea | 15.000 |
| 94. EK. | 4.5.4 ekintza Sinergiak sustatzea erakunde publikoekin eta gizarte ekimeneko erakundeekin (Iberifier, esaterako), helburu honekin: gezurren eta gorroto diskurtsoren hedapena prebenitzea desinformazioaren xede izan daitezkeen hainbat gaitan, hala nola generoaren eremuan; arrazakeria, xenofobia eta atzerritar jatorriko pertsonen estigmatizazioa prebenitzea; memoria historikoa lantzea... | Memoria eta Bizikidetza Zuzendaritza Nagusia / Nafarroako Berdintasunerako Institutua (NABI) / Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusia | Formalizatutako akordioen kopurua/mota<br>Egindako ekintzen kopurua/mota<br>Entitate parte-hartzaileen kopurua/mota | 235.000 |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| 95. EK. | 4.5.5 ekintza Ekimen eta programa horiek lurraldeka antolatzea Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin, GGKEen Koordinakundearekin, tokiko komunikabideen elkarteekin, hezkuntza sarearekin eta udaletako oinarrizko gizarte zerbitzuekin lankidetzan. | Memoria eta Bizikidetza Zuzendaritza Nagusia / Nafarroako Berdintasunerako Institutua (NABI) / Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusia | Formalizatutako akordioen kopurua/mota<br>Egindako ekintzen kopurua/mota<br>Gizarte erakunde parte-hartzaileen kopurua/mota<br>Toki entitate parte-hartzaileen kopurua | 5.787,5 |
| 96. EK. | 4.5.6 ekintza Memoria eta Bizikidetza Zuzendaritza Nagusiaren eta Kanpo Ekintzarako Zuzendaritza Nagusiaren arteko lankidetza, Europar Batasunaren deialdien finantzaketa bilatzeko eta nazioarteko sareetan parte hartzeko, zeinek gorroto diskurtsoen aurkako egiazko komunikazioarekin eta albiste faltsuak sortu eta zabaltzearekin lotutako balioak lantzen baitituzte. | Memoria eta Bizikidetza Zuzendaritza Nagusia / Kanpo Ekintzarako Zuzendaritza Nagusia | Aurkeztutako deialdien kopurua/mota<br>Finantzatutako proiektuen kopurua/mota | Zuzkidura ekonomikorik gabe |

**5. HO: Nafarroako erakundeen, politikaren, gizartearen eta ekonomiaren alorreko jardueretan giza eskubideak aplikatzeko mekanismoak bultzatzea.**

**5.1 HE Giza eskubideekiko konpromisoa dakarten ekimen instituzional, sozial eta ekonomikoak sustatzea (giza eskubideak Nazio Batuen 1948ko Adierazpen Unibertsalean zehaztu ziren, bai eta horren ondorengo eguneratze eta arau garapenetan ere).**

| Zk. | Ekintzaren izena | Unitate arduraduna | Adierazleak | Aurrekontua (€) |
|---|---|---|---|---|
| 97. EK. | 5.1.1 ekintza Irabazi asmorik gabeko entitateei laguntza emateko deialdia, giza eskubideekiko eta | Memoria eta Bizikidetza Zuzendaritza Nagusia | Egindako deialdien kopurua<br>Diruz lagundutako erakundeen kopurua | 160.000 |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| | bizikidetzarekiko konpromisoa sustatzen duten proiektuak egiteko. | | Egindako proiektuen kopurua/mota | |
| 98. EK. | 5.1.2 ekintza Nafarroako toki entitateei laguntza emateko deialdia, giza eskubideekiko eta bizikidetzarekiko konpromisoa sustatzen duten proiektuak egiteko. | Memoria eta Bizikidetza Zuzendaritza Nagusia | Egindako deialdien kopurua<br>Diruz lagundutako erakundeen kopurua<br>Egindako txostenen kopurua | 120.000 |
| 99. EK. | 5.1.3 ekintza Bakearen Nazioarteko Egunaren testuinguruan, ekitaldi bat antolatzea, bakearen, bizikidetzaren eta giza eskubideen arloan duen inplikazio eta konpromisoagatik nabarmendu den erakunde edo pertsona bat aintzatesteko. | Memoria eta Bizikidetza Zuzendaritza Nagusia | Ekitaldia egitea<br>Entitate parte-hartzaileak<br>Pertsona parte-hartzaileen kopurua/ sexua | 20.000 |
| 100. EK. | 5.1.4 ekintza Giza Eskubideen Nazioarteko Egunaren inguruan jardunaldiak antolatzea, herritar guztiei zuzenduak, unibertsitateen, Giza Eskubideen Institutuen, gizarte erakundeen, administrazio publikoen eta abarren parte-hartzearekin. | Memoria eta Bizikidetza Zuzendaritza Nagusia | Egindako jardunaldien kopurua<br>Erakunde parte-hartzaileen kopurua<br>Pertsona parte-hartzaileen kopurua/ sexua<br>Parte-hartzaileen ebaluazio adierazlea | 90.000 |
| 101. EK. | 5.1.5 ekintza Giza eskubideei buruzko jardunaldi espezifikoak antolatzea, memoriaren, bakearen, bizikidetzaren eta giza eskubideen arloan beste autonomia erkidego eta Europako eskualde batzuekin sinatutako lankidetza hitzarmenen esparruan. | Memoria eta Bizikidetza Zuzendaritza Nagusia | Egindako jardunaldien kopurua<br>Erakunde parte-hartzaileen kopurua<br>Pertsona parte-hartzaileen kopurua/ sexua<br>Parte-hartzaileen ebaluazio adierazlea | 25.000 |
| 102. EK. | 5.1.6 ekintza Giza eskubideen arloan sentsibilizatzeko “Somos personas/Pertsonak gara” urteroko programa, Nafarroako ikastetxeei zuzendua, finkatzea, Nafarroako toki entitateen lankidetzarekin eta giza | Memoria eta Bizikidetza Zuzendaritza Nagusia | Sentsibilizazio jardueren kopurua/mota<br>Ikastetxe kopurua/mota<br>Toki entitate laguntzaileen kopurua<br>Gizarte erakundeen kopurua/mota | 60.000 |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| | eskubideen alde lan egiten duten elkarte eta eragileen parte-hartzearekin. | | Pertsona parte-hartzaileen kopurua/ sexua<br>Parte-hartzaileen ebaluazio adierazlea | |
| 103. EK. | 5.1.7 ekintza Nafarroako ikastetxeetako Lehen Hezkuntzako ikasleek garatutako “Giza Eskubideen aldeko kate ipuina” proiektua sendotzea. | Memoria eta Bizikidetza Zuzendaritza Nagusia | Egindako jardueren kopurua<br>Ikastetxe parte-hartzaileen kopurua/mota<br>Pertsona parte-hartzaileen kopurua/ sexua<br>Parte-hartzaileen ebaluazio adierazlea | 20.000 |

**5.2 HE Giza eskubideen arloan erakundeen arteko lankidetza sustatzea eta indartzea.**

| Zk. | Ekintzaren izena | Unitate arduraduna | Adierazleak | Aurrekontua (€) |
|---|---|---|---|---|
| 104. EK. | 5.2.1 ekintza Hitzarmena Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin, memoriaren eta bizikidetzaren arloan. | Memoria eta Bizikidetza Zuzendaritza Nagusia | Formalizatutako hitzarmena | Zuzkidura ekonomikorik gabe |
| 105. EK. | 5.2.2 ekintza Nafarroako Gobernuaren eta toki entitateen artean bizikidetza mahaiak sortzea, herriko elkarte, gizarte eta kultura sarearen parte-hartzearekin, bizikidetza hobetuko duten tokiko ibilbide orriak diseinatzeko. | Memoria eta Bizikidetza Zuzendaritza Nagusia | Egindako bizikidetza mahaien kopurua<br>Toki entitate parte-hartzaileen kopurua<br>Gizarte erakunde parte-hartzaileen kopurua/mota<br>Egindako ibilbide orrien kopurua | 6.000 |
| 106. EK. | 5.2.3 ekintza Giza eskubideen arloko lankidetza neurriak txertatzea Euskadirekin eta Kataluniarekin sinatutako hitzarmenetan, eta beste eskualde batzuekin hitzarmenak sinatzea sustatzea. | Memoria eta Bizikidetza Zuzendaritza Nagusia | Sinatutako hitzarmen berrien kopurua<br>Aldatutako hitzarmenen kopurua<br>Nafarroarekin hitzarmen berriak sinatu dituzten autonomia erkidegoak | 750 |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| 107. EK. | 5.2.4 ekintza Tokiko, estatuko, Europako eta nazioarteko erakundeekin etengabe lankidetzan aritzeko akordioak, helburu dutenak, besteak beste, giza eskubideak sustatzea eta defendatzea. | Memoria eta Bizikidetza Zuzendaritza Nagusia | Formalizatutako akordioen kopurua<br>Akordioetan inplikatutako erakundeen kopurua/mota | 2.250 |
| 108. EK. | 5.2.5 ekintza Garapenerako Nazioarteko Lankidetzarako Espainiako Agentziaren-Nafarroako Gobernuaren Demokrazia-Memoria, Bakea eta Gatazkak Konpontzeko Sarean diseinatutako ekintzak garatu eta ezartzea. | Memoria eta Bizikidetza Zuzendaritza Nagusia | Egindako ekintzen kopurua/mota | 105.000 |
| 109. EK. | 5.2.6 ekintza Nafarroan egoitza duten unibertsitateekin lankidetza eta baterako lana sendotzea, memoriaren, bizikidetzaren eta giza eskubideen arloan proiektu partekatuak ezartzeko. | Memoria eta Bizikidetza Zuzendaritza Nagusia | Unibertsitate parte-hartzaileen kopurua<br>Proiektu partekatuen kopurua/mota | 2.250 |
| 110. EK. | 5.2.7 ekintza Lan mahai bat sustatzea, Nafarroako Bizikidetzaren II. Plan Estrategikoaren garapenari buruz eztabaidatzeko eta hausnartzeko gune gisa. Mahai horretan hainbat erakunde akademikok hartuko dute parte, hala nola I-Communitasek, Unesco Katedrak, Kultura eta Gizarte Institutuak, Eusko Ikaskuntzak eta Nafarroako Soziologia eta Politologia Elkargoak. | Memoria eta Bizikidetza Zuzendaritza Nagusia | Egindako bileren kopurua<br>Entitate edo gizarte erakunde parte-hartzaileen kopurua/mota | 750 |
| 111. EK. | 5.2.8 ekintza Eusko Ikaskuntzarekin lankidetzan aritzea, “Nafarroan bizikidetzarako zubiak eraikitzen” proiektua garatzeko. | Memoria eta Bizikidetza Zuzendaritza Nagusia | Egindako ekintzen kopurua/mota | 2.000 |

**5.3 HE Justiziaren esparruan gatazkak konpontzeko zerbitzu eta eredu berritzaileak sustatzea, aplikazio judizial eta penal hobea eta eraginkorragoa lortzeko.**

| Zk. | Ekintzaren izena | Unitate arduraduna | Adierazleak | Aurrekontua (€) |
|---|---|---|---|---|
| 112. EK. | 5.3.1 ekintza Justizia leheneratzaile intrajudizial eta komunitarioa eskaintzeko zerbitzu bat garatzea, gatazkak konpontzeko molde komunitarioak sustatzeko eta, hala, arazo sozialak epaibideetatik ateratzeko. | Justizia Zuzendaritza Nagusia | Izandako prozesuen kopurua:<br>Lagundutako pertsonen kopurua/ sexua<br>Kudeatutako gatazka motak | 425.000 |
| 113. EK. | 5.3.2 ekintza Zigor arloko tresnak eta betearazpen zerbitzu bat sustatzea, delituak egin dituzten pertsonak gizarteratu ahal izateko gizarte inklusioa bermatzen duten programen eta ekintzen bidez. | Justizia Zuzendaritza Nagusia | Egindako ekintzen kopurua/mota<br>Lagundutako pertsonen kopurua/ sexua | 476.142 |

**6. HO: Elkarrizketan eta itunetan oinarritutako prozesu instituzionalak bultzatu eta indartzea, eztabaidetan asaldura murriztuz eta gobernantza ona bultzatuz.**

**6.1 HE Elkarrizketa demokratikoan erakundeek eta alderdi politikoek duten eredugarritasunari buruzko hausnarketa sozial eta instituzionala sustatzea.**

| Zk. | Ekintzaren izena | Unitate arduraduna | Adierazleak | Aurrekontua (€) |
|---|---|---|---|---|
| 114. EK. | 6.1.1 ekintza Hainbat gairi buruzko mahai inguruak eta eztabaidak antolatzea: erakundeak eta bizikidetza, | Memoria eta Bizikidetza Zuzendaritza Nagusia | Antolatutako ekitaldien kopurua/mota<br>Parte-hartzaileen kopurua/ sexua /adina | 22.500 |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| | politika deslegitimatzearen arriskuak edo nola heldu polarizazioari eta asaldura politikoari. | | Parte-hartzaileen ebaluazio adierazlea | |

**6.2 HE Gobernantza oneko sistema bat bultzatzea bizikidetzarako.**

| Zk. | Ekintzaren izena | Unitate arduraduna | Adierazleak | Aurrekontua (€) |
|---|---|---|---|---|
| 115. EK. | 6.2.1 ekintza Gobernantza onari buruzko ikaskuntza jardunaldiak, adituen eta erakundeetako ordezkarien parte-hartzearekin. | Memoria eta Bizikidetza Zuzendaritza Nagusia | Egindako jardunaldien kopurua<br>Pertsona parte-hartzaileen kopurua/ sexua<br>Parte-hartzaileen ebaluazio adierazlea | 15.000 |
| 116. EK. | 6.2.2 ekintza "Elkarrizketa politiko publikoa ez tenkatzea" ekintza. Elkarrizketa tailerrak, zeinetan ordezkari politiko eta instituzionalek, herritarrek eta informazioko eta komunikazioko profesionalek parte hartuko baitute. | Memoria eta Bizikidetza Zuzendaritza Nagusia | Egindako tailerren kopurua<br>Pertsona parte-hartzaileen kopurua/ sexua<br>Parte-hartzaileen ebaluazio adierazlea | 18.750 |

**6.3 HE Kolektibo jakin batzuen aurkako diskriminazio, aurreiritzi, difamazio eta gorroto diskurtsoen eragina neutralizatzea.**

| Zk. | Ekintzaren izena | Unitate arduraduna | Adierazleak | Aurrekontua (€) |
|---|---|---|---|---|
| 117. EK. | 6.3.1 ekintza "Bizikidetza gorrotorik gabe idazten da" programa egitea diskriminazio, aurreiritzi eta gorroto diskurtsoen aurka. | Memoria eta Bizikidetza Zuzendaritza Nagusia / Nafarroako Berdintasunerako Institutua (NABI) / | Egindako ekintzen kopurua/mota<br>Entitate parte-hartzaileak | 16.500 |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| | | Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusia | | |

# 8. Kudeaketa sistemak.

Nafarroako Bizikidetzaren II. Plan Estrategikoa (2025-2029) ekintza publikorako erreferentziazko zeharkako tresnatzat hartzen da bizikidetzaren, giza eskubideen eta aniztasunaren arloan. *Planen plan* gisa duen izaerak departamentuen eta zuzendaritza nagusien arteko interdependentzia handia eskatzen du, baita gobernantza egitura sendoa ere, egituratua dagoena eta lankidetza, zeharkakotasuna, erakundeen arteko elkarrizketa eta hartutako konpromisoen jarraipen eraginkorra bermatzera bideratzen dena.

Bizikidetzaren I. Plan Estrategikoa (2020-2024) ezartzean lortutako esperientziatik eta emaitzetatik abiatuta, orain proposatzen den kudeaketa eta gobernantza eredua bat dator II. Planaren printzipio estrategikoekin: errespetua, elkarrizketa, lankidetza, berrikuntza eta ikuspegi berritua.

Planaren ekintzek Nafarroako Gobernuko hainbat departamentu ez ezik, eragile instituzional, politiko, sozial eta ekonomiko ugari ere hartzen dituzte barnean. Memoria demokratikoarekin, giza eskubideekin edo bizikidetzarekin lotutako gaiei buruzko elkarrizketa eta solasaldi iraunkorra funtsezkoak dira ardatz estrategikoak, helburuak eta ekintzak definitzeko eta garatzeko. Horretarako, jarraipen mekanismoak sortu behar dira, horiek guztiak integratzeko eta Planaren aurrerapenaren ikuspegi orokorra izateko.

Horren harira, bi espazio bereizi ezarri dira:

**Jarraipen Mahaia.** Memoria eta Bizikidetza Zuzendaritza Nagusiko zerbitzu teknikoek osatzen dute (Planaren koordinazioaz eta ezarpenaz arduratzen da zuzendaritza hori), baita inplikatuta dauden gobernuko departamentuek eta eragile instituzional, politiko, sozial eta ekonomiko nagusiek ere.

Hauek dira helburuak:

- Planean aurreikusitako ekintzen aurrerapen maila ezagutzea, bai ikuspegi ekonomikotik, bai egikaritzearen eta emaitzen ikuspegitik, Egikaritzearen Urteko Txostena aurkeztuz.
- Tarteko eta amaierako ebaluazioetatik ateratako ondorioak aztertzea, bereziki sortutako inpaktuei dagokienez.
- Planari doikuntzak, hobekuntzak eta aldaketak proposatzea, beharrezkotzat jotzen denean.

**Jarraipen Mahaiak** Memoria eta Bizikidetza Zuzendaritza Nagusiko zerbitzuen laguntza teknikoa izanen du, eta gutxienez urtean behin bilduko da.

**Departamentuen arteko gobernantza sistema:** Memoria eta Bizikidetza Zuzendaritza Nagusia buru duen gobernantza sistema bat ezarriko da, departamentuen arteko koordinaziorako mekanismoak, tresnak eta protokoloak finkatzeko.

Era berean, Bizikidetzaren II. Plan Estrategikoaren diseinuari, garapenari eta ezarpenari buruzko informazio guztia jendaurrean jarriko da webgune espezifiko baten bidez.

# 9. Ebaluazioa eta jarraipena.

Zehaztu behar da Planaren ebaluazioa eta jarraipena nola eta noiz eginen diren.

Bizikidetzaren II. Plan Estrategikoaren ebaluazio sistemak helburu hauek ditu:

a) Planaren ekintzen betetze maila monitorizatzea.
b) Helburuen eta ekintzen betetze maila eta eragin soziala eta instituzionala aztertzea eta ebaluatzea.
c) Informazio egiazkoa eta egiaztatua lortzea, ebidentzian oinarritutako erabakiak bideratu ahal izateko, bai eta Plana ezartzeko beharrezkoak diren doikuntzak egitea ere.



Ebaluazioa egiteko orduan, bi une bereizten dira. Lehenengoa tarteko ebaluazio bat egitea da, Planaren indarraldiaren erdian, eta amaierako ebaluazio bat. Bi kasuetan, helburua da II. Planaren ekintzen ebaluazioan eta monitorizazioan ezarritako helburuak betetzen diren egiaztatzea, haien eraginkortasuna eta efizientzia baloratuta. Bigarrena Egikaritzearen Urteko Txostena egitea da. Txosten hori Jarraipen Mahaiari aurkeztuko zaio, eta Planaren ezarpenean egin daitezkeen egokitzapenei eta aldaketei buruzko azterketa eta erabakiak hartzea bideratzeko balioko du.

I. Planean egindako jarraipen eta monitorizazio txostenetatik abiatuta, ebaluazio sistemarekin lotutako hobekuntza arlo batzuk hauteman ziren. Garrantzitsuenak erabilitako adierazleak mugatzeari buruzkoak ziren; izan ere, adierazle gehienak kuantitatiboak ziren eta emaitzak neurtzera bideratuta zeuden soilik, baina ez zuten aukerarik ematen egikaritzearekin, eragin sozialarekin edo departamentuen arteko koordinazioarekin lotutako prozesuak edo alderdiak aztertzeko.

Informazio horretatik abiatuta, II. Planaren jarraipen egokia lortzeko, zerbitzu teknikoek informazioa biltzeko tresnak garatuko dituzte, hala nola elkarrizketa kualitatiboak, dokumentuen analisia eta adierazle kualitatiboen taulak (helburu eta ekintzen egokitasuna, eragin soziala eta departamentuen arteko koordinazioa ebaluatzeko) eta kuantitatiboenak (ekintzen betetze maila monitorizatzeko). Hala eta guztiz ere, II. Plana gauzatu bitartean, Urteko Egikaritze Txostenen eta Tarteko Ebaluazioaren emaitzen arabera, eta Jarraipen Mahaiak egindako proposamenen arabera, interesgarritzat jotzen diren II. Planaren alderdi zehatz batzuk ardatz dituzten ebaluazio espezifikoak egiten ahalko dira.

II. Planaren monitorizazioak eta ebaluazioak sexuaren arabera bereizitako datuetan oinarrituta egindako genero-adierazleak jasoko ditu lehentasunez, II. Planaren dimentsioek emakumeei eta gizonei nola eragiten dieten identifikatzeko, ardatz estrategiko bakoitzean dituzten posizioak, esperientziak eta jarduketak kontuan hartuta.

# 10. Memoria ekonomikoa. Aurreikusitako gastuaren laburpena eurotan, ardatz estrategikoen eta helburuen arabera.

| Ardatzak eta helburuak | Guztira (€) **17.405.574,32** |
|---|---|
| 1. ardatza – Memoria, biktimak eta bizikidetza politikoa | 2.952.500 |
| 1.1 HE 1936ko kolpe militarraren eta diktadura frankistaren biktimen eskubideen aplikazioa bultzatzea. | 565.000 |
| 1.2 HE Terrorismoaren biktimen eskubideen aplikazioa bultzatzea, bereziki ETAren terrorismoaren biktimenena. | 195.000 |
| 1.3 HE Motibazio politikoko indarkeriaren biktimen eskubideen aplikazioa bultzatzea. | 238.000 |
| 1.4 HE Terrorismoaren eta indarkeria politikoaren biktimen aitortza sozial eta instituzionala bultzatzea. | 9.750 |
| 2.1 HE Nafarroan izan diren indarkeria frankistaren, terrorismoaren –bereziki, ETAren terrorismoaren– eta indarkeria politikoaren dimentsio, arrazoi eta ondorioen inguruko ikerketa historiko eta soziologikoa sustatzea. | 1.102.000 |
| 2.2 HE Herritarrak sentsibilizatzea memoria kritikoak bizikidetza indartzeko duen garrantziaz. | 660.000 |
| 2.3 HE Espazio publikoak demokratizatzeko prozesuak indartzea. | 138.250 |
| 2.4 HE Lankidetza sareak sortzea, autonomia erkidegoen artekoak eta estatu eta Europa mailakoak, memoria demokratikoaren garapenaren eta transmisioaren inguruan. | 44.500 |
| 2. ardatza – Aniztasunean elkarrekin bizitzea | **10.175.162** |
| 3.1 HE Harrerako eta kulturen arteko bizikidetzarako estrategia berriak bultzatzea. | **9.239.092** |
| 3.2 HE Erlijio eta kontzientzia askatasuna eta elkarrekiko errespetua bermatzea ikuspegi espiritual erlijiosoen eta laikoen artean. | 10.750 |
| 3.3 HE Sexu eta genero aniztasunaren ikusgarritasuna eta gizarte normalizazioa areagotzea eta bereizkeriak desagerraraztea. | 786.320 |
| 3.4 HE Errespetua sustatzea eta identitate, ideologia eta iritzi aniztasunak biltzen dituzten balio demokratikoak indartzea. | 14.000 |
| 3.5 HE Nafarroako identitate errealitate ezberdinen arteko bizikidetza espazioak sustatzea. | 125.000 |
| 3. ardatza – Bizikidetza eta giza eskubideak | 4.277.912,32 |
| 4.1 HE Memoria, bizikidetza eta giza eskubideen arloko heziketa proiektu bat sustatzea, Nafarroako ikastetxeetako eskola komunitate osoari zuzendua. | 1.964.982,82 |

| | |
|---|---|
| 4.2 HE Bizikidetzarako hezkuntza ez formaleko jarduerak sustatzea. | 378.250 |
| 4.3 HE Interneten eta sare sozialen erabileran sen kritikoa sustatzea. | 70.000 |
| 4.4 HE Eguneroko bizikidetza hondatzen duten indarkeria sotil edo ikusezinak ikusaraztea eta prebenitzea. | 9.500 |
| 4.5 HE Komunikabideekiko lankidetza bultzatzea bizikidetza indartzeko lanean. | 267.287,5 |
| 5.1 HE Giza eskubideekiko konpromisoa dakarten ekimen instituzional, sozial eta ekonomikoak sustatzea (giza eskubideak Nazio Batuen 1948ko Adierazpen Unibertsalean zehaztu ziren, bai eta horren ondorengo eguneratze eta arau garapenetan ere). | 495.000 |
| 5.2 HE Giza eskubideen arloan erakundeen arteko lankidetza sustatzea eta indartzea. | 119.000 |
| 5.3 HE Justiziaren esparruan gatazkak konpontzeko zerbitzu eta eredu berritzaileak sustatzea, aplikazio judizial eta penal hobea eta eraginkorragoa lortzeko. | 901.142 |
| 6.1 HE Elkarrizketa demokratikoan erakundeek eta alderdi politikoek duten eredugarritasunari buruzko hausnarketa sozial eta instituzionala sustatzea. | 22.500 |
| 6.2 HE Gobernantza oneko sistema bat bultzatzea bizikidetzarako. | 33.750 |
| 6.3 HE Kolektibo jakin batzuen aurkako diskriminazio, aurreiritzi, difamazio eta gorroto diskurtsoen eragina neutralizatzea. | 16.500 |